- 3) El índice horizontal de aportación de Gipuzkoa ha descendido del 32,94% al 32,91%: aumentan los recursos guipuzcoanos.
- 4) El crecimiento de la recaudación guipuzcoana es inferior al de la recaudación de tributos concertados de la CAPV.

1. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEN ZERGA. 2005EKO EKITALDIA

1.0. SARRERA

Aurkeztutako aitortpenei dagokienez, 2005ean aitortpen berretsiek gora egiten jarraitu dute beste bi modalitateen kaltetan.

Lanaren errentak jarraitzen du **errenta iturri nagusia** izaten (%79,3). Errenta egotziek joera negatiboari eutsi diote (-%67,6). Ondare irabazi eta galerak berriro hazi dira (+%9,4), eta susperraldia berretsitu dute 2002. urtean behera egin eta gero.

Oinarri ezargarriaren murrizpenen artean honako hauek dira aipagarriak: batetik, pentsio planenak, BGAEenak eta urteko mantenuarenak, eta, bestetik, batera aitortzeagatik egindakoak.

Kenkarietan apenas izan da aldaketarik. Bi aipatu daitezke soil-soilik: kenkari gehitua etxebizitzan (familia ugariarentzako muga desagertu da eta 35 urtetik beherakoei 30.000 euroraino handitu da oinarri ezargarriaren muga), eta errentamenduagatik aplikatutakoa, nabarmen handitu baita. %8,4 hazi dira guztira kenkariak.

Atxikipen nagusia lanarena da (kopuru osoaren %85,1). Atxikipen guzti-guztiak gehitu dira, Interes Ekonomikoko Taldeengatik eta Enpresen Aldi Baterako Bata-sunengatik aplikatutakoak izan ezik, beren garrantzia gero eta txikiagoa baita (-%76,9) errenten egozpenarena bezalaxe. Atxikipenak %8,6 hazi dira guztira.

Itzultzeko aitortpenen kopuruak eta guztira itzult-tako zenbatekoak gora egin dute, eta batez besteko itzul-ketak azken lau urteetako zifrarik handiena eman du. Bestalde, **ordaintzeko aitortpenen kopurua** eta horien zenbatekoa 2004. urtean baino gehiago dira. Gainera, zenbatekoa neurri handiagoan hazi denez, aitortpen bakoitzeko ordaindu beharreko batez bestekoa igo egin da.

15.600 eurotik beherako oinarri likidagarria duten aitortpenak dira ugariak. Alabaina, oinarri likidagarria-ren zenbatekorik handiena 13.800 eta 27.600 euro bitar-teko aitortpenetan ageri da. Kuota likidoarekin gauza bera gertatzen da.

Karga tasa nominala %21,2koa izan da (+0,2 aurreko urtearen aldean), eta **karga tasa efektiboa** %16,8koa (+0,3).

1. IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS. EJERCICIO 2005

1.0. INTRODUCCIÓN

En cuanto a las **declaraciones presentadas**, en 2005 siguen aumentando las declaraciones confirmadas en detrimento de las otras dos modalidades.

La **principal fuente de renta** sigue siendo la del trabajo (79,3%). Las rentas imputadas siguen su tendencia negativa (-67,6%). Las ganancias y pérdidas patrimoniales han vuelto a aumentar (+9,4%), confirmando así su recuperación tras el descenso de 2002.

Entre las **reducciones de la base imponible** destacan, por una parte, las de planes de pensiones, EPSVs y anualidades, y por otra, las que se aplican por haber hecho la declaración conjunta.

No ha habido prácticamente cambios en las **deducciones**, únicamente en la deducción incrementada en vivienda (desaparece el límite para las familias numerosas y amplían hasta 30.000 euros el límite de la base imponible para menores de 35 años) y un significativo aumento de la deducción por arrendamiento. En total las deducciones han aumentado en un 8,4%.

La **principal retención** es la del trabajo (85,1% del total). Todas las retenciones han aumentado excepto la retención por Agrupaciones de Interés Económico y UTEs que, al igual que la imputación de rentas, cada vez son menos representativas (-76,9%). El total de retenciones ha crecido un 8,6%.

Tanto el **número de declaraciones a devolver** como la cantidad total devuelta han aumentado, y la media devuelta ha obtenido la cifra más alta de los últimos cuatro años. Por su parte, el **número de las declaraciones a ingresar** así como su importe presentan mayor cuantía que en 2004, y, como la cuantía lo ha hecho en mayor medida, la media a ingresar por cada declaración ha aumentado.

El grupo más numeroso de declaraciones lo constituyen las que tienen una base liquidable inferior a 15.600 euros. Sin embargo, la mayor cuantía de base liquidable se acumula en las declaraciones de entre 13.800 y 27.600 euros. Lo mismo sucede con la cuota líquida.

El **tipo nominal de gravamen** ha sido el 21,2% (+0,2 con respecto al año anterior), mientras que el **tipo efectivo de gravamen** ha sido el 16,8% (+0,3).

Aitorpenak errenta iturri nagusiaren arabera sailkatzen baditugu, ikus dezakegu ugarienak lan errentarenak direla (%80,7), eta atzetik jarduera ekonomikoenak datozela. Hori dela-eta, batez besteko orokorra, bai oinarri likidagarriarena, bai kuotena (osoa zein likidoarena) eta bai karga tasarena, parekaturik dator lanaren batez bestekoarekin.

Jarduera ekonomikoen taldeko aitorpenetan, zerbitzuen sektoreak metatu du aitorpen kopururik handiena (%51,7). Ondoren, profesionalen eta artisten sektorea eta eraikuntzarena datoz (horietako bakoitzak %18 gainditu du).

Lehen sektoreak jarduera nagusiaren batez besteko etekinik txikiena aitortu du: 7.446 euro. Profesionalek eta artistek, ordea, batez bestekorik handiena aitortu dute: 23.944 euro.

Aitortutako batez besteko etekinik handiena Farmaziaren jarduera adarrak bereganatu du: 73.240 euro. Aldiz, aitortutako batez besteko etekinik txikiena nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari dagokio 6.238 euroekin.

Aukera zuten aitorpen guztietatik, erdiak baino zerbait gutxiagok (%48,0k) Zenbatespen Objektiboa (moduluak) aukeratu du jardueraren etekina kalkulatzeko (termino absolututan, jarduera ekonomikoen taldeko aitorpen guztien %22,9k). Autotaxi bidezko garraioa izan da modalitate hori gehien erabili duena (%98,3), eta Instalazio Elektrikoen jarduera, berriz, gutxien baliatu dena (%3,9).

1.1. AURKEZTUTAKO AITORPENAK

Zenbat aitorpen aurkeztu dira?

Guztira 353.005 aitorpen aurkeztu dira, denak ere 2005. urteari dagozkionak, 2004. urtean baino 9.997 gehiago (+%2,9).

Aitorpen berretsiak gora egiten jarraitu dute beste bi modalitateen kaltetan

Hona hemen 2005eko datuak:

- Modalitate mekanizatuan aurkeztutako aitorpenak: 111.473 (%31,6).
- Aitorpen berretsiak: 108.550 (%30,8).
- Modalitate arrunta erabiliz aurkeztutako aitorpenak: 132.982 (%37,7).

Si clasificamos las **declaraciones en función de la principal fuente de renta**, obtendremos que las más numerosas son las del grupo de trabajo (80,7%), seguidas por las de actividades económicas. Por ello, la media general, tanto de la base liquidable como de las cuotas (íntegra y líquida) y del gravamen, va pareja con la media del trabajo.

Entre las declaraciones del grupo de actividades económicas, es el sector de servicios quien mayor número de declaraciones acumula (51,7%). Le siguen los sectores de profesionales y artistas y de la construcción (cada uno de ellos supera el 18%).

El sector primario declara la media más baja del rendimiento de la actividad principal: 7.446 euros. En contrapartida, los profesionales y artistas declaran la media más alta: 23.944 euros.

La rama de actividad con mayor rendimiento medio declarado es la de Farmacia: 73.240 euros. Por el contrario, el menor rendimiento medio declarado corresponde al sector agropecuario con 6.238 euros.

De todas las declaraciones que podían hacerlo, algo menos de la mitad (48,0%) han optado por la Estimación Objetiva (por módulos) para calcular el rendimiento de la actividad (en términos absolutos el 22,9% de todas las declaraciones del grupo de actividades económicas). Quién más ha escogido esta modalidad ha sido la actividad de Transporte autotaxis (98,3%), y quien menos, Instalaciones eléctricas (3,9%).

1.1. DECLARACIONES PRESENTADAS

¿Cuántas declaraciones se han presentado?

Del 2005 se han presentado 353.005 declaraciones, 9.997 más que del 2004 (+2,9%).

Las declaraciones confirmadas siguen aumentando en detrimento de las otras dos modalidades

Estos son los datos del año 2005:

- Declaraciones presentadas por la modalidad mecanizada: 111.473 (31,6%).
- Declaraciones confirmadas: 108.550 (30,8%).
- Declaraciones presentadas por la modalidad ordinaria: 132.982 (37,7%).

Nahiz eta, 2004. urtekoekin alderatuta, portzentajeak aldatu egiten diren (%33,5, %25,8 eta %40,7 hurrenez hurren), aurreko urteetako joerari eusten zaio aitorten berretsien modalitatea garrantzia hartuz joan delako beste bi modalitateen aldean (+%22,6). Bi horiek jaitsi egin dira: mekanizatuak %3,1 eta arruntak %4,6.

Los porcentajes varían con respecto a los de 2004 (33,5%, 25,8% y 40,7% respectivamente), manteniendo la tendencia de los años anteriores en los que el modelo de confirmadas ha ido adquiriendo mayor importancia (+22,6%), frente a los otros dos modelos que descienden: las mecanizadas un 3,1% y las ordinarias un 4,6%.

GRÁFICO 1.1. GRAFIKOA
Aitorpen kopurua (urtez urte)
Evolución del número de declaraciones





GRÁFICO 1.2. GRAFIKOA
Tributazio mota
Modalidad de tributación



Aitorpen berretsiak aitorpen-likidazioen proposamenak dira, behin etxera bidalita zergadunek telefonoz zein internet bidez onartu eta berretsi ditzaketenak. Aurreko ekitaldietan modalitate berri bezala ezarri ziren arren, 2002. urtetik aurrera hartu dute benetako garrantzia, eta joera horrek ekitaldi honetan ere izan du jarraipena.

Aitorpen arrunten barruan, beherakadak daude modalitate guztietan:

- Telematikoak (aurkeztutako aitorpenen %32,5): -%3,0.
- Diskete bidezkoak ("paperean" aurkeztutakoak baino gehiago berriz ere): -%10,9.
- Paperean aurkeztutakoak (gutxienak): -%19,3.

Itzultzeko aitorpenak kopuru osoaren %76,4 dira

2004. urtearekin alderatuta, itzultzeko aitorpenen kopurua aitorpen kopuru osoa baino gutxiago hazi da (+%1,6), eta ia puntu bat galdu du: %77,3tik %76,4ra pasatu da. Bestalde, ordaintzeko aitorpenak %7,5 gehitu dira, kopuru osoaren %22,2 izatetik %23,2 izatera igaro direlako.

Las declaraciones confirmadas son propuestas de declaración-liquidación que se envían al domicilio y que sólo ha de manifestarse su confirmación vía telefónica o telemática. Aunque se establecieron como nueva modalidad en ejercicios anteriores, ha sido a partir de 2002 cuando han tenido mayor repercusión, tendencia que continúa en este ejercicio.

Dentro de las declaraciones ordinarias, se produce un descenso generalizado en todas las modalidades:

- Las telemáticas (representan el 32,5% de las declaraciones presentadas): -3,0%.
- Disquete (siguen siendo más que las presentadas en "papel"): -10,9%.
- Las presentadas en papel (son las más minoritarias)^o: -19,3%.

Las declaraciones a devolver representan el 76,4%

Con respecto a 2004, el número de declaraciones a devolver ha crecido a menor ritmo que el total (+1,6%) por lo que su representación ha descendido en casi un punto: del 77,3% al 76,4% actual. Por otro lado, las declaraciones a ingresar aumentan un 7,5%, y su representación ha pasado del 22,2% al 23,2% del total.

GRÁFICO 1.3. GRAFIKOA
Aitorpen kopurua, zergadunei itzultzekoak edo Ogasunari ordaintzekoak
Número de declaraciones, a devolver al contribuyente o a ingresar en Hacienda





GRÁFICO 1.4. GRAFIKOA

Aitorpen mota
Tipo de declaración



Familia unitatean sartu gabekoen aitorpenak banakako aitorpenak baino gehiago dira berriro

Familia unitatean sartu gabeko zergadunak %4,0 gehitu dira, eta kopuru osoaren %40,3 hartzen dute. Gainerakoak (%59,7) bi taldetan banatzen dira: batetik, aitorpena batera aurkezten dutenak (%26,9), eta bestetik, banakako modalitatea nahiago dutenak (%32,8). Datu horiek aurreko ekitaldietakoekin alderatuz gero, agerian jartzen da baterako aitorpenak oso gutxi aldatzen direla (-%0,1 azken bi ekitaldietan), eta banakakoak berriro hazi direla (+%4,2).

Las declaraciones de los no incluidos en unidad familiar siguen superando a las individuales

Los contribuyentes no incluidos en una unidad familiar han aumentado un 4,0% y representan el 40,3%. El resto (59,7%) se divide entre quienes presentan la declaración conjunta (26,9%), y quienes prefieren la modalidad individual (32,8%). Si comparamos estos datos con los ejercicios anteriores, apreciamos que mientras las declaraciones conjuntas apenas varían (-0,1% en los dos últimos ejercicios), las declaraciones individuales han vuelto a aumentar (+4,2%).

1.2. NONDIK DATOR AITORTUTAKO ERRENTA?

Datu aipagarri gisa, esan dezakegu 2005eko ekitaldiko oinarri likidagarria 6.796 milioi eurokoa izan dela, aurreko urtean baino 519 milioi gehiago (+%8,3).

1.2. ¿DE DÓNDE PROCEDE LA RENTA DECLARADA?

Como dato más importante queremos apuntar que la base liquidable del ejercicio 2005 ha sido de 6.796 millones de euros, 519 millones más que el año anterior (+8,3%).

Lanetik datozen errentak aitortutako guztiaren %79,3 dira

1.5. grafikoan ikus daiteke nola banatu diren oinarri ezargarria osatzen duten errentak.

Etekin mota hauetatik guztietatik hiru aztertuko ditugu zehatzago: lanaren errentak, kapital higiezinaren errentak, eta ondare irabazi eta galerak.

Lanaren errentak: %8,1 gehitu da etekin garbia

2004. urtearekin alderatuta, lan errenten etekin gordinak %7,3 hazi da, eta etekin garbia %8,1. Arrazoia hau da: hobariak eta gastu kengarriak gutxiago haztea (%3,1 lehenak eta %5,2 bigarrenak). Bi kasuetan, etekin gordinak baino proportzio txikiagoan hazi dira.

Las rentas procedentes del trabajo representan el 79,3% del total declarado


Las rentas que componen la base imponible se reparten según el gráfico 1.5.

De todos estos rendimientos hay tres: las rentas de trabajo, las rentas del capital inmobiliario y las ganancias y pérdidas patrimoniales, que vamos a analizar más detenidamente.

Rentas de trabajo: ha aumentado un 8,1% su rendimiento neto

Si bien el rendimiento bruto de la renta de trabajo ha aumentado un 7,3% respecto a 2004, el neto lo ha hecho un 8,1%. Razón: el menor incremento tanto de las bonificaciones (3,1%) como de los gastos deducibles (+5,2%). En ambos casos han aumentado en menor proporción que los rendimientos brutos.

GRÁFICO 1.5. GRAFIKOA
Errentaren jatorria
Procedencia de la renta



Kapital higiezina: emaitzak aldatzen dira ondasun higiezinak zein motatakoak diren

Bi zati ditu etekinak: ondasun higiezinena oro har (alokatuak izan edo ez) eta ohiko etxebizitzarena (konpentsazio erregimenera biltzen diren entzat).

Ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezinaren etekinak %8,0 gehitu da 2004. urtearen aldean.

Ohiko etxebizitzatik datozen etekinek emaitza negatiboa izan dute (-15 milioi eurokoa guztira), aurreko ekitaldikoa baino handiagoa (-18 milioi eurokoa izan baitzen orduan). Horrek %17,4ko hazkundea ekarri du. Bestalde, ohiko etxebizitza erosteko maileguengatik konpentsazio erregimenean aitortutako interesak %17,0 jaitsi dira

Aldiz, kontuan hartzen badugu zenbatekoa izan den interesengatik kuota aplikatu den enkariaren oinarria, hau da, bai konpentsatutako interesak eta bai kendutako interesen oinarria aintzat hartzen baditugu, igoera txiki bat ikusten da 2004. urtearen aldean: +%0,3.

Ondare irabazi eta galerak %9,4 gehitu dira

2003an eta 2004an gaintu egin dira 2002ko beharrek gertatu aurretik zeuden mailak. Igoera nabarmenak izan dira urte horietan, burtsako merkatuen portaerak lagunduta: 32 milioi 2003an (+%21,9) eta 98 milioi 2004an (+%54,1).

Azken ekitaldian portaera moderatuagoa izan dute, hau da, gora egiten jarraitu dute baina tasa horietara iritsi gabe: 563 milioi (%9,4). Oinarri ezargarriarekiko portzentajea 2004an bezala mantendu da, %4,0an han zuzen.

Oinarri ezargarriaren murrizpenak

Murrizpenei dagokien honako hauek dira datu nagusiak:

- Pentsio planak, BGAEak eta urteko mantenurako ordainketak: 421 milioi (+%10,8).
- Murrizpena batera aitortzeagatik: 327 milioi (+%2,1).
- Konpentsazioa ohiko etxebizitza erostekoagatik: 15 milioi (-%17,4).

Capital inmobiliario: diferentes resultados en función del tipo de bienes inmuebles

El rendimiento se divide en dos partes: el de los bienes inmuebles en general (estén alquilados o no) y el de la vivienda habitual (para los que se acogen al régimen de compensación).

El rendimiento neto de los bienes inmuebles que no son vivienda habitual ha aumentado un 8,0% con respecto a 2004.

Los rendimientos provenientes de la vivienda habitual obtienen un resultado negativo (-15 millones de euros) superior al del ejercicio precedente (-18 millones) por lo que se ha producido un aumento del 17,4%. Por otro lado, cabe destacar que los intereses por préstamos a la vivienda habitual por compensación han descendido un 17,0%.

En cambio, si además tomamos en consideración a cuánto asciende el total de la base de deducción de los intereses en cuota, es decir, si tomamos en cuenta tanto los intereses compensados como la base que representa los intereses deducidos, se produce un ligero aumento con respecto a 2004: +0,3%.

Ganancias y pérdidas patrimoniales: aumentan un 9,4%

Tras elevados aumentos, influidas por el comportamiento de los mercados bursátiles, en los ejercicios precedentes (en 2003 crecen en 32 millones y +21,9%, y en 2004 en 98 millones y +54,1%) ha superado los niveles anteriores al descenso que se produjo en 2002.

En el último ejercicio el comportamiento es más moderado, es decir, sigue creciendo pero sin alcanzar tasas tan elevadas: en 563 millones y un 9,4%. Su porcentaje respecto a la base imponible se mantiene en el 4,0% alcanzado en 2004.

Reducciones de la base imponible

En lo que se refiere a las reducciones, estos son los datos principales:

- Planes de pensiones, EPSVs y anualidades por alimentos: 421 millones (+10,8%).
- Reducción por haber hecho la declaración conjunta: 327 millones (+2,1%).
- Compensación por haber comprado la vivienda habitual: 15 millones (-17,4%).

Pentsio planei eta BGAEei egindako ekarpenen murrizpenak izan duen hazkundera nabarmentzen da berrir, aurreko ekitaldietan bezala. 2002an 321 milioi eurokoa izatetik 421 milioi eurokoa izatera igaro da 2005ean, hau da, 4 urtetan %30,9 gehitu da.

Errenta iturriak oinarri likidagarriaren tarteen arabera

2005eko errenta iturri nagusiek aurreko urteko egiturari eutsi diote. Besteren konturako lanaren etekinek portzentajerik handiena ageri dute tarte guztietan, eta baliorik handienak erdiko tartetean lortu dituzte, 15.600 eta 27.600 euro bitarteko oinarria dutenetan alegia (%88 eta %89 bitartean dira). Erdiko tarte horietan, eta batez ere 20.400 eta 27.600 euro bitartekoan, errenta enpresarial eta profesionalen baliorik txikienak ageri dira; hauek, beren aldetik, lehen bi tartetean jotzen dute goia (10.800 eurorainoko oinarrian) bai eta azkenekoan ere (66.000 eurotik gorako oinarrian).

Kapital higikorren errentak oso pisu txikia du tarte gehienetan, eta bere portzentajerik onenak lehen eta azken tartetean ageri ditu.

“Bestelako errentak” deritzen apartatuak (kapital higiezina, ondare irabazi eta galerak eta errenten egozpena hartzen dituenak) azken tartean bakarrik agertzen du ekarpen esanguratsurik: kopuru osoaren %26,4.

Sigue destacando, al igual que en ejercicios anteriores, el incremento de la reducción por aportaciones a planes de pensiones y EPSVs. Ha pasado de 321 millones de euros en 2002 a los 421 millones actuales, es decir, un 30,9% en 4 años.


Fuentes de renta distribuidas por tramos de base liquidable

Las principales fuente de renta en 2005 mantienen una estructura similar al año anterior. Los rendimientos de trabajo por cuenta ajena son los que mayor porcentaje tienen en todos los tramos, y alcanzan sus valores máximos en los intervalos intermedios (base entre 15.600 y 27.600 euros, donde llega a representar entre el 88% y el 89%). Estos tramos, sobre todo entre 20.400 y 27.600 euros, coinciden con los menores valores de rentas empresariales y profesionales, que, a su vez, tocan techo en los dos primeros tramos (base hasta 10.800 euros) y en el último (base superior a 66.000 euros).

La renta de capital mobiliario tiene una baja representación en la mayoría de los tramos, si bien obtiene sus mejores porcentajes en el primero y en el último tramo.

Por su parte, el apartado “Otras rentas” (capital inmobiliario, ganancias y pérdidas patrimoniales, e imputación de rentas) sólo tiene una aportación significativa en el último tramo, donde representa el 26,4% del total.

GRÁFICO 1.6. GRAFIKOA
Errenta iturrien portzentajeak, oinarri likidagarriaren tarteen arabera
Fuentes de renta en % por tramos de base liquidable



1.3. KENKARIAK

Etxebizitza errentan emateagatik araututako kenkariaren aplikazioa zabaldu egin da etxebizitzaren alokairua sustatzeko zerga neurrien barruan. Era berean, 35 urtetik beherako kasuan 30.000 euroraino zabaldu da kenkari gehitua aplikatzeko oinarriaren muga, eta familia ugariarentzat zegoen muga kendu egin da.

2005. urtean **329** milioi euroko kenkariak egin dira guztira, aurreko urtean baino 25 milioi gehiago (**+%8,4**). 1.7. grafikoan kenkari horien banaketa ikus dezakegu.

Kenkari familiar eta pertsonalak ohiko etxebizitzarekin baino gehiago izan dira berriro

Kenkari hauen zenbatekoa 2003an jarri zen lehenengo aldiz ohiko etxebizitzagatik aplikatutako kenkariaren gainetik, eta azken ekitaldian ere hala jarraitu du. Batera hartuta, 125 milioi eurokoak izan dira guztira, kopuru osoaren **%37,9**. Gainera, **%3,8** hazi dira, eta horrek lau dezima portzentualetan hobetu du aurreko ekitaldiko igoera.

1.3. DEDUCCIONES

Se amplia la aplicación de la deducción por arrendamiento de vivienda dentro de las medidas tributarias de fomento de alquiler de viviendas. También se ha ampliado hasta 30.000 euros el límite de la base para aplicar la deducción incrementada en el caso de contribuyentes menores de 35 años y ha desaparecido el límite en el caso de familias numerosas.

Para el año 2005 el total de deducciones ha ascendido a **329** millones de euros, 25 más que el año anterior (**+8,4%**). Estas deducciones se reparten según recoge el gráfico 1.7.

Las deducciones familiares y personales se mantienen por delante de las de vivienda habitual

El importe de este grupo de deducciones se adelantó por primera vez a la deducción por vivienda habitual en 2003 y se mantiene por encima en el último ejercicio. En conjunto se elevan a 125 millones de euros y representan el **37,9%** del total. Además, han crecido un **3,8%** lo que supone mejorar en cuatro décimas porcentuales el incremento del ejercicio anterior.

GRÁFICO 1.7. GRAFIKOA
Kenkariak taldeen arabera
Deducciones por grupos





GRÁFICO 1.8. GRAFIKOA
Kenkari familiar eta pertsonalak (urtez urte)
 Evolución de las deducciones familiares y personales



Banaka hartuz gero, talde honetan kenkari guztiak hazi dira 2004. urtearen aldean, salbuespen bat eginda: aurreko ahaideen kenkariak aurreko ekitaldietako joera negatiboari eutsi dio eta %9,0 jaitsi da. Gainerako kenkari familiar eta pertsonalak honela gehitu dira:

- Adopzioa: 32.000 euro eta +%42,9.
- Ezgaituak: 7.000 euro eta +%28,0.
- Urteko mantenurako ordainketak: 78.000 euro eta +%13,2.
- 65 urtetik gorako adina: 2 milioi euro eta +%9,5.
- Itsu, mutilatu edo elbarriak: 1,4 milioi euro eta +%6,7.
- Ondorengo ahaideak: 1,2 milioi euro eta +%1,5.

Ohiko etxebizitzaren kenkaria %10,8 gehitu da

Bi azpitalde handitan bana dezakegu ohiko etxebizitzaren kenkaria:

- **Alokairuaren kenkaria.** 11 milioikoa da guztira, 2004an baino %20,4 gehiago.
- **Inbertsioaren kenkaria.** 111 milioi euroko kenkariak egin dira, %9,9 gehiago.

Individualmente, todas las deducciones de este grupo han crecido respecto a 2004, salvo la deducción por ascendientes que persiste en su tendencia negativa de ejercicios anteriores y ha descendido en un 9,0%. Las demás deducciones familiares y personales presentan los siguientes incrementos:


- Adopción: 32.000 euros y +42,9%.
- Discapacitados: 7.000 euros y +28,0%.
- Abono de anualidades: 78.000 euros y +13,2%.
- Edad superior a 65 años: 2 millones de euros y +9,5%.
- Invidentes, mutilados o inválidos: 1,4 millones de euros y +6,7%.
- Descendientes: 1,2 millones de euros y +1,5%.

La deducción por vivienda habitual crece un 10,8%

Podemos dividir la deducción por vivienda habitual en dos grandes subgrupos:

- **Deducción por alquiler.** Alcanza los 11 millones, un 20,4% más que en 2004.
- **Deducción por inversión.** Con 111 millones de euros ha aumentado un 9,9%.

GRÁFICO 1.9. GRAFIKOA
Ohiko etxebizitzaren kenkaria (urtez urte)
 Evolución de la deducción por vivienda habitual



Inbertsioaren kenkariaren barruan hiru kontzeptu bereizi nahi ditugu:

- **Inbertsioa.** Bere zenbatekoa 76 milioi eurokoa da (+%9,6).
- **Finantzazioa.** Kenkari hau asko handitu da aurreko urtearen aldean (%0,7 jaitsi zen orduan): 2005. urtean 3,7 milioi euro hazi da (+% 16,1).
- **Etxebizitza kontuak.** Ekarpen hauen kenkaria 8 milioi euro inguruan dabil. 2005. urtean 365.000 euro jaitsi da (-% 4,3).

Etxebizitza errentan emateagatik aplikatutako kenkaria %34,9 hazi da.

Igoera hori aurreko urteko %20,6 baino handiagoa da, eta etxebizitzaren alokairua bultzatzeko ezarritako zerga neurriei zor zaie, haien arabera honako kasuotan ere aplikatzen baita kenkari hau:

- Etxebizitzaren tituluak “Bizigune” programara biltzen direnean.
- Etxebizitza honako hauei utzi edo alokatzen zaizkion: Sozietateen gaineko Zergaren araudian etxebizitzak errentan ematen dituzten entitateentzat jasotako araubide bereziaz gozatzen duten sozietateei.

Dentro de la deducción por inversión, queremos profundizar en tres conceptos:


- **Inversión.** El importe asciende a 76 millones de euros (+9,6%).
- **Financiación.** Esta deducción aumenta de forma considerable con respecto al año anterior (varió en un -0,7%): en 2005 ha crecido en 3,7 millones de euros (+16,1%).
- **Cuentas vivienda.** La deducción por estas aportaciones se mantiene entorno a los 8 millones de euros. En 2005 ha descendido en 365.000 euros (-4,3%).

Aumentan un 34,9% la deducción por arrendamiento de vivienda.

Esta subida es superior al 20,6% del año anterior, consecuencia de las medidas tributarias para el fomento del alquiler de viviendas por las que se amplía la aplicación de esta deducción a:

- Los titulares de viviendas que se acojan al programa de vivienda vacía.
- Cuando la vivienda se ceda o alquile a sociedades que se beneficien del régimen especial de entidades dedicadas al arrendamiento de viviendas regulado en la normativa del Impuesto sobre Sociedades.

GRÁFICO 1.10. GRAFIKOA
Ezarpen bikoitzaren kenkariak (urtez urte)
 Evolución de las deducciones por doble imposición



Ezarpen bikoitzagatik egindako kenkariak %10,5 gehitu dira

Igoera hori aurreko urteko %17,7 baino txikiagoa da. Hala ere, hori ez da oztopo izan kenkari honek bigarren hazkunde kuantitatiborik handiena izan dezan (6,8 milioi euro) ohiko etxebizitzaren atzetik.

Jarduerak sustatzeko kenkariak behera berriro

Jarduerak sustatzeko kenkariak aurreko ekitaldietako beherazko joerarekin jarraitu dute. 2005ean 82.000 euro jaitسي dira, eta %7,0ko beherakada ekarri dute.

Dohaintzen kenkariak %23,6 gehitu dira

Dohaintzen kenkariak goranzko joerari eutsi dio berriro, eta 2005ean 718.000 euro handiagoa izan da (%23,6). Aldiz, bestelako kenkarien taldeak behera egin du berriro, %75,8 hain zuzen, batik bat gardentasun fiskalagatik lehen aplikatzen zen kenkariak orain IETen eta EABen kenkaria baino jasotzen ez duelako.

Aumentan un 10,5% las deducciones por doble imposición

Esta subida es inferior al 17,7% del año anterior. Ello no impide que con un aumento de 6,8 millones de euros sea la deducción que haya obtenido, tras la vivienda habitual, el segundo mayor aumento cuantitativo.

Las deducciones para el fomento de actividades siguen descendiendo

Las deducciones para el fomento de actividades continúan la tendencia descendente de ejercicios anteriores. En 2005 hay 82.000 euros menos de deducción lo que supone un descenso del 7,0%.

Aumentan un 23,6% las deducciones por donativos

Continúa la tendencia de aumento de la deducción por donativos: en 2005 ha crecido en 718.000 euros, un 23,6%. El grupo de otras deducciones, en cambio, sigue descendiendo, concretamente un 75,8%, debido principalmente a que la anterior deducción por transparencia fiscal ahora sólo recoge la deducción por AIEs y UTEs.

1.4. ATXIKIPENAK

2005ean 1.280 milioi euro atxiki dira: aurreko urtean baino %8,6 gehiago.

Atxikipen nagusia: lanarena

Honako hauek izan dira atxikipenen iturri nagusiak:

- Lana: kopuru osoaren %85,1.
- Jarduera ekonomikoak: %8,3.
- Kapital higikorra: %4,6.
- Kapital higiezina: %1,7.
- Ondare irabaziak: %0,3.
- IETen eta EABen atxikipenak eta sariei dagozkienak apenas dira esanguratsuak.

1.4. RETENCIONES


En 2005 se han retenido a cuenta 1.280 millones de euros: un 8,6% más que el año anterior.

La principal retención: la del trabajo

Las retenciones provienen principalmente de las siguiente fuentes:

- Trabajo: 85,1% del total.
- Actividades económicas: 8,3%.
- Capital mobiliario: 4,6%.
- Capital inmobiliario: 1,7%.
- Ganancias patrimoniales: 0,3%.
- Las retenciones provenientes de AIEs y UTEs y de los premios son prácticamente residuales.

GRÁFICO 1.11 GRAFIKOA
Atxikipen nagusiak
Principales retenciones



Lanaren atxikipenekin batera, honako hauek hazi dira gehien: kuantitatiboki kapital higikorrarenak, eta portzentualki inbertsio kolektiboak.

Kapital higikorraren atxikipenak 6,8 milioi euro hazi dira (%13,1), eta portzentaje horrekin apurtu egin da aurreko bi ekitaldietako beherazko joera.

Hala ere, hazkunde portzentualik handiena inbertsio kolektiboan atxikipenek lortu dute, milioi bat euro hazi baitira (%39,5). Portzentaje horrek atxikipen guztien hazkundera ere gaintitzen du, hogeita hamar puntu portzentual baino gehiago.

Interes Ekonomikoko Taldeen eta Enpresen Aldi Baterako Batasunen atxikipena da ekitaldian jaitzi den bakarra (-%76,9). 319.000 euro gutxiagorekin, gardentasun fiskala desagertzean hasitako beherazko joerarekin jarraitu du.

Gainerako atxikipenetan honako igoerak izan dira:

- Lana: %8,7 (+88 milioi euro).
- Jarduerak: %4,4 (+4,5 milioi).
- Kapital higiezia: %6,7 (+1,4 milioi).
- Sariak: %27,5 (+20.000 euro).

Atxikipenen eta sarreraren arteko erlazioa

Atxikitako zenbatekoak sarreraren gainean zein portzentaje hartzen duen aztertu eta gero, honako ondorioetara iritsi gara azken lau urteotako bilakaerari buruz:

- Besteren konturako lanaren portzentajeak 2003an behera egin ondoren, gora egiten du berriro aurreko urteotako mailen gainetik. Lau urtetan 0,3 puntu hazi da guztira.
- Jarduera ekonomikoen portzentajeak puntu portzentual bat jaitzi zen 2003an, araudian sartutako aldaketengatik (%16,8raino jaitzi zen). 2004an ere behera egin zuen, baina 0,1 puntu soil-soilik, azken ekitaldian berreskuratu duena (%16,8).
- Kapital higikorraren portzentajeak ere atxikipen portzentajeak 2003an izan zuen murrizpenaren eragina sumatu du (%12,8raino jaitzi zen urte horretan); 2004an 0,1 puntu bakarrik galdu zuen eta %12,7raino iritsi zen. 2005ean portzentaje hori errepikatu da.

(Kapital higiezinaren eta ondare irabazien datuak ez daude eskuragarri).

Además del trabajo, las retenciones que más han aumentado son: cuantitativamente la del capital mobiliario, porcentualmente la de inversiones colectivas

Las retenciones de **capital mobiliario** han aumentado en 6,8 millones de euros, un 13,1%, obteniendo así un porcentaje elevado que rompe la tendencia de descensos de los dos ejercicios anteriores.

El mayor crecimiento porcentual, sin embargo, lo ha alcanzado las retenciones de inversiones colectivas que con 1 millón de euros más han crecido el 39,5%. Este porcentaje supera en más de treinta puntos porcentuales el aumento del total de retenciones.

La única retención que desciende en el ejercicio es la de las Agrupaciones de Interés Económico y la Unión Temporal de Empresas que, con un -76,9% (319.000 euros menos), continúa la tendencia descendente iniciada desde la desaparición de la Transparencia Fiscal.

El resto de las retenciones presentan los siguientes incrementos:

- Trabajo: 8,7% (+88 millones de euros).
- Actividades: 4,4% (+4,5 millones).
- Capital inmobiliario: 6,7% (+1,4 millones).
- Premios: 27,5% (+20.000 euros).

Relación entre las retenciones y los ingresos

Tras analizar el porcentaje que supone la cantidad retenida sobre los ingresos, llegamos a las siguientes conclusiones sobre su evolución en los últimos cuatro años:

- El porcentaje del trabajo por cuenta ajena tras el descenso de 2003 vuelve a aumentar por encima de los niveles de los años precedentes. En total ha aumentado 0,3 punto en cuatro años.
- La evolución del porcentaje de actividades económicas se ve afectada por el cambio normativo de 2003 y desciende en un punto porcentual hasta el 16,8%. En 2004 vuelve a descender, aunque sólo en 0,1 punto, para recuperarlo en el último ejercicio (16,8%).
- El porcentaje del capital mobiliario, también afectado por el descenso del porcentaje de retención en 2003, disminuye en dicho ejercicio hasta el 12,8% y en 0,1 punto en 2004 hasta el 12,7%, porcentaje que repite en 2005.

(No disponemos de los datos correspondientes al capital inmobiliario y a las ganancias patrimoniales).

1.5. GIZARTE EDO ERLIJO XEDEETARA ZUZENDUTAKO PORTZENTAJEA: %0,5239

Jakina denez, kuota osoaren %0,5239 gizarte xede-
etara edo erlijio helburuetara zuzendu daiteke. Biak auke-
ratzen badira, kuota osoaren %0,5239 Eliza Katolikoari
laguntzeko erabiltzen da eta beste %0,5239 bat xede
sozialetara bideratzeko. Aukera ez bada espresuki adie-
razten, portzentajea xede orokorretara bideratzen da.

2005. urteko kuota osoa 2004koa baino handiagoa
izan denez, xede horietara bideratutako kopuru guztiak
hazi egin dira, aldeak ageri badira ere:

- Aukera adierazi ez dutenen zenbatekoa %10,8 gehitu da (-%6,2 izan zen 2004an).
- Aukera adierazi dutenen zenbatekoa %9,0 hazi da, baina aldeak ikusten dira aukeratutako helburuen artean. Zehazki esanda:
- Helburu sozialak %13,3 hazi dira.
- Eliza Katolikoari zuzendutako dirua gutxiago hazi da: %3,0.


1.5. ASIGNACIÓN DEL 0,5239% PARA FINES SOCIALES O RELIGIOSOS

Como es sabido, el 0,5239% de la cuota íntegra puede destinarse bien a fines religiosos o bien a fines sociales. Si se hacen constar ambas opciones, se destina un 0,5239% de la cuota íntegra al sostenimiento de la Iglesia Católica y, además, otro 0,5239% a otros fines sociales. Si no se hace constar expresamente, se destina a fines generales.

En 2005, la cuota íntegra total del año es superior a la de 2004 y todas las cantidades asignadas han aumentado, con diferencias:

- La cuantía de los que no han hecho constar su elección ha aumentado un 10,8% (en 2004 fue -6,2%).
- La cuantía de los que si hacen constar su elección ha aumentado un 9,0% con diferencias entre las dos opciones. Concretamente:
- Fines sociales han crecido un 13,3%
- El dinero destinado a la Iglesia Católica crece menos: 3,0%.

GRÁFICO 1.12 GRAFIKOA
Erligio eta gizarte xedeetara bideratutako kuotaren banaketa eta bilakaera
Distribución y evolución de la cuota asignada para fines religiosos y sociales



1.6. ITZULTZEKO ETA ORDAINTZEKO AITORPENAK

Itzultzeko aitorpenak

2005. urtean 269.590 aitorpenek itzultzeko emaitza izan dute. 273.088.472 euro itzuli dira guztira: batekoz beste, 1.013 euro aitorpeneko.

Ordaintzeko aitorpenak

82.034 aitorpenek ordaintzeko emaitza izan dute. Horien ondorioz, 133.503.799 euro ordaindu zaizkio Ogasunari, batekoz beste 1.627 euro aitorpeneko.

Ordaindu beharreko batez bestekoa handitu egin da 2004. urtearen aldean

Aurreko urtearekin konparatuta, igoerak daude bai aitorpen kopuruan eta bai Ogasunari guztira ordainduta-ko zenbatekoan. Aitorpen bakoitzeko ordaindu beharreko batez bestekoak ere gora egin du, 32 euro gehiago hain zuzen (+%2,0). Arrazoiak hauek: aitorpen kopurua %7,5 hazi den bitartean, zenbatekoak hazkunde handixeagoa izan du: %9,7.

2003ko joera aldaketarekin jarraitu da

2005ean gora egin du berriro aitorpen bakoitzeko ordaindu beharreko batez bestekoak, eta epealdiko maximo iritsi da ekitaldi horretan.

1.6. DECLARACIONES A DEVOLVER Y A INGRESAR

Declaraciones a devolver

En 2005 el número de declaraciones a devolver ha ascendido a 269.590. La cantidad total devuelta 273.088.472 euros: una media de 1.013 euros por declaración.

Declaraciones a ingresar

El número de las declaraciones a ingresar ha sido 82.034. En total han ingresado 133.503.799 euros, con una media de 1.627 euros de ingreso por declaración.

La media a ingresar aumenta en relación con 2004

Con respecto al año anterior, han aumentado tanto el número de declaraciones como la cantidad total ingresada a Hacienda, y la cantidad media a ingresar por cada declaración. Esta última ha crecido en 32 euros (+2,0%). Esto se debe a que frente al 7,5% de incremento en el número de declaraciones, la cuantía ha aumentado un poco más: 9,7%.

Continúa el cambio de la tendencia de 2003

En 2005, sigue aumentando la media a ingresar por declaración, y alcanza en este ejercicio el máximo del periodo recogido.

GRÁFICO 1.13 GRAFIKOA
Aitorpen kopurua, zergaren emaitzaren arabera
Número de declaraciones según resultado del impuesto




GRÁFICO 1.14 GRAFIKOA
Zergaren emaitzaren bilakaera. Zenbatekoak, guztira
Evolución del resultado del impuesto. Importes totales





GRÁFICO 1.15 GRAFIKOA
Zergaren emaitzaren bilakaera. Batez besteko zenbatekoak
Evolución del resultado del impuesto. Importes medios



1.7. BANAKETA OINARRI LIKIDAGARRIAREN TARTEEN ARABERA

Gogora dezagun oinarri likidagarriak 8 tarte hauek dituela, eurotan:


- Lehen tarte: 6.000 euroraino
- Bigarren tarte: 10.800 euroraino
- Hirugarren tarte: 15.600 euroraino
- Laugarren tarte: 20.400 euroraino
- Bosgarren tarte: 27.600 euroraino
- Seigarren tarte: 37.200 euroraino
- Zazpigarren tarte: 66.000 euroraino
- Zortzigarren tarte: 66.000 euro baino gehiago

1.7. DISTRIBUCIÓN POR TRAMOS DE BASE LIQUIDABLE

Recordamos que los 8 tramos de la base liquidable son, en euros:

- Primer tramo: hasta 6.000
- Segundo tramo: hasta 10.800
- Tercer tramo: hasta 15.600
- Cuarto tramo: hasta 20.400
- Quinto tramo: hasta 27.600
- Sexto tramo: hasta 37.200
- Séptimo tramo: hasta 66.000
- Octavo tramo: Más de 66.000

GRÁFICO 1.16. GRAFIKOA
Aitorpen kopurua tarteen arabera
Número de declaraciones por tramos



Aitorpen kopurua lehen hiru tarreetan metatu da

2005. urtean aitorpen kopururik handiena lehen hiru tarreetan pilatu da: 173.389 aitorpen (**%49tik gora**). Eta hiru horietatik, **hirugarrena** da gehien metatu duena: 65.854 aitorpen (**%18,7**).


El número de declaraciones se acumula en los tres primeros tramos

En 2005 el mayor número de declaraciones se concentra en los tres primeros tramos: 173.389 declaraciones (**superan el 49%**). Y, de los tres, quien más acumula es **el tercero** con 65.854 declaraciones (**18,7%**).

Aurreko urtearekin alderatuta, aurkeztutako aitorten kopurua tarte guztietan igo da, lehenengo hiruetan izan ezik, %4,9, %3,2 eta %2,0 jaitsi baitira hurrenez hurren. Igoerarik handiena seigarren tartean dugu: 5.340 aitorten gehiago eta +%18,8. Alabaina, portzentajerik altuena azken tartean dago: +%19,9 eta 1.144 aitorten gehiago.

Con respecto al año anterior, se han presentado más declaraciones en todos los tramos, excepto en los tres primeros que descienden un 4,9%, un 3,2% y un 2,0% respectivamente. El mayor aumento se ha producido en el sexto tramo: 5.340 declaraciones más y +18,8%. El porcentaje más elevado, en cambio, se encuentra en el último tramo: +19,9% con 1.144 declaraciones más.

GRÁFICO 1.17. GRAFIKOA
Oinarri likidagarriaren zenbatekoa tarteen arabera
Cuantía de la base liquidable por tramos




Oinarri likidagarria laugarren, bosgarren eta seigarren tartetean metatu da

2005. urtean, oinarri likidagarriaren zenbatekorik handiena laugarren, bosgarren eta seigarren tartetean ageri da, hau da, 15.600 eta 37.200 euro bitarteko oinarri likidagarria duten tartetean (batera hartuta, kopuru osoaren %51,6 metatu dute). Hiru horietatik, bosgarren tartea da gehien metatu eta gehien hazi dena (20.400 eta 27.600 euro bitarteko tartea): 1.398 milioiko oinarri likidagarria (%20,6) eta 98 milioi euro gehiago (+%7,6).

En los tramos cuarto, quinto y sexto se acumula la base liquidable

En 2005, los tramos que mayor cuantía de base liquidable presentan son tres: cuarto, quinto y sexto. Es decir, aquellas bases liquidables que van desde 15.600 hasta 37.200 euros (en conjunto acumulan el 51,6%). De los tres, el tramo que más cuantía concentra y más ha aumentado es el quinto (entre 20.400 y 27.600 euros): 1.398 millones de base liquidable (20,6%) y 98 millones de euros más (+ 7,6%).

GRÁFICO 1.18. GRAFIKOA
Kuota likidoaren zenbatekoa tarteen arabera
Cuánta de la cuota líquida por tramos



Kuota likidoa: zazpigarren tartea da nagusi

2005ean zazpigarren tartea izan da gehien metatu duena, eta ez bosgarrena (oinarri likidagarriaren zenbatekoarekin gertatzen den bezala): 233 milioi euro metatu ditu guztira, kopuru osoaren %20,4. Atzetik, zortzigarren tartea dator 229 milioi eurekin (%20,1). Hirugarren lekuan bosgarren tartea ageri da, aurreko ekitaldietan lehen tokia hartzen zuena. Kuota likido osoaren %20,0 pilatu da tarte honetan. Hirugarren tokia hartzen duen arren, kontuan izan behar da hiruetatik tarte hau dela zabalera txikienekoa.

Guztiarekin ere, gehikuntzarik handiena seigarren tartea lortu du (27.600 eta 37.200 euro bitartekoak): 31 milioi euro hazi da, %17,8 gehiago.

1.8. KARGA TASAK

Karga tasa nominala: %21,2

Kuota osoak oinarri likidagarriaren gainean duen portzentajea da. 2005. urtean %21,2 izan da karga tasa nominala.

Karga tasa efektiboa: %16,8

Kuota likidoak oinarri likidagarriaren gainean duen portzentajea da. 2005. urtean %16,8 izan da karga tasa efektiboa.

Cuota líquida: sobresale el séptimo tramo

En 2005 el tramo que más acumula no ha sido el quinto (como ocurre con la cuantía de la base liquidable) sino el séptimo: 233 millones de euros, que suponen el 20,4% del total. Le sigue el tramo octavo con 229 millones (el 20,1%). En tercer lugar se encuentra el tramo 5º, que ocupaba el primer puesto en los ejercicios anteriores, en el que se concentra el 20,0% del total de la cuota líquida. Aunque ocupe el tercer lugar, ha de tenerse en cuenta que, de los tres, es el tramo con menor amplitud de intervalo.

Sin embargo, el tramo que mayor incremento presenta es el sexto (con base liquidable entre 27.600 y 37.200 euros): ha aumentado en 31 millones de euros, un 17,8% más.

1.8. TIPOS DE GRAVAMEN

Tipo nominal de gravamen: 21,2%

Es el porcentaje que supone la cuota íntegra sobre la base liquidable. En 2005 el tipo nominal de gravamen ha sido del 21,2%.

Tipo efectivo de gravamen: 16,8%

Es el porcentaje que supone la cuota líquida sobre la base liquidable. En 2005 el tipo efectivo de gravamen ha sido del 16,8%.


2004koak baino handiagoak dira bi tasak

2004. urtearekin alderatuta, tasa nominalaren portzentajea 0,2 puntu igo da. Tasa efektiboak ere gora egin du, igoera handiagoa bada ere: 0,3 puntu. Bi kasuetan, portzentajeak 2002an izandakoen azpitik daude (%21,3 eta %17,2 hurrenez hurren).

Aumentan ambos tipos frente a 2004

Con respecto a 2004, el porcentaje del tipo nominal ha aumentado en 0,2 puntos. El tipo efectivo también ha crecido y lo ha hecho en mayor cuantía: en 0,3 puntos. En ambos casos se mantienen por debajo de los porcentajes de 2002 (21,3% y 17,2% respectivamente).

GRÁFICO 1.19. GRAFIKOA
Tasa efektiboak oinarri likidagarriaren tarteen arabera
Tipos efectivos por tramos de base liquidable



Tasa efektiboen eskala: A taldean, 13.200 euro bitartekoan, alde handiak ageri dira

Tasa efektiboek oinarri likidagarriarekin duten progresioa aztertzeko, lau taldetan banatu ditugu oinarri likidagarriaren tarteak:

- A: 13.200 euroraino.
- B: 25.200 euroraino.
- C: 150.000 euroraino.
- D: 150.000 euro baino gehiago.

A taldean, tasa efektiboek malda handia ageri dute. Oinarri likidagarriaren lehen tartetik bigarrenera tasa efektiboaren portzentajea 3,7 puntu gehitzen da, eta bigarrenetik hirugarrenera 3,5 puntu.

B taldean malda hori ez da hain bortitza: tasaren portzentajeak tarte batetik bestera duen aldea 2,3 eta 1,6 puntu bitartean dabil.

Escala de los tipos efectivos: grandes diferencias en el grupo A (hasta 13.200 euros)

Para analizar la progresión de los tipos efectivos con relación a la base liquidable, hemos distribuido los tramos de la base liquidable en estos cuatro grupos:

- A: hasta 13.200 euros.
- B: hasta 25.200 euros.
- C: hasta 150.000 euros.
- D: más de 150.000 euros.

En el grupo A se observa una pendiente pronunciada de los tipos efectivos. Del primer al segundo tramo de la base liquidable el porcentaje del tipo efectivo ha aumentado 3,7 puntos; del segundo al tercero, 3,5 puntos.

En el grupo B la pendiente no es tan pronunciada: el salto del porcentaje del tipo entre tramos de la base es entre 2,3 y 1,6 puntos.

C taldean, tasa efektiboen malda areagotu egiten da eta oinarri likidagarriak tartetik tartera duen aldea 2,5 eta 3,4 puntu bitartean dago.

D taldeak azken bi tarteak hartzen ditu (150.000 eurotik gora). Maldak beheranzko joera hartzen du hemen: 150.000 eta 180.000 euro bitarteko tasa efektiboa ez da ia aldatzen (-0,6 puntu), eta hurrengo tartean 1,2 puntu jaisten da.

Nahiz eta, hasiera batean, emaitza hori harrigarria gerta daitekeen PFEZ bezalako zerga progresibo batean, ez dugu ahaztu behar karga tasa efektiboari buruz ari garela hitz egiten, hau da, kenkari aplikagarriak behin kontuan hartuta. Eranskineko E.1.20. eta E.1.21. tauletan ikus daitekeen bezala, azken taldeko zergadunek aurreko taldekoek baino kenkari handiagoak aplikatzen dituzte bai kopuruz eta bai portzentajez (gehienbat ezarpen bikoitzaren kenkariak), eta horregatik, euren karga tasa efektiboak behera egiten du.

1.9. NOLA SAILKATU DIRA AITORPENAK?

1.9.1. ERRENTA ITURRI NAGUSIAK

Nola kalkulatzen da zerga?

Oro har, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak bi zati hartzen ditu kontuan: batetik, zergadunaren sarrera eta gastu guztiak eta, bestetik, ondarezko ondasunak saltzeagatik izandako galerak eta irabaziak. Beraz, zergaren oinarri likidagarria eragiketa honen emaitza izango da: (etekin positiboak – etekin negatiboak) + (ondare irabaziak – ondare galerak).

Hortaz, sarritan gerta daiteke aitorpen batek errenta iturri bat baino gehiago izatea.

Errenta iturri nagusiaren arabera sailkatu dira aitorpenak

Aitorpenak sailkatzerakoan errenta iturri nagusiak bakarrik hartu ditugu kontuan, aurreko urteetan bezala.

Hau da, kanpoan geratu dira egozpenetatik eratorritako errenta, garrantzi eskasekoa izateagatik, eta ondare irabazi eta galerak, irregularrak gertatzeagatik.

Hala ere, kapital higiezinaren etekinak eta kapital higikorrenak errenta iturri bakartzat hartu ditugu; izan ere, kolektiboen artean banaketa desberdina duten arren, oso lotuta daude elkarren artean.

En el grupo C la pendiente de los tipos efectivos es más acentuada y el salto del porcentaje de tramo a tramo de base liquidable se sitúa entre 2,5 y 3,4 puntos.

En el grupo D, que corresponde a los dos últimos tramos (más de 150.000 euros), la pendiente toma una forma descendente: el tipo efectivo entre 150.000 y 180.000 euros apenas varía (-0,6 puntos) y en el siguiente tramo desciende en 1,2 puntos.

Aunque en principio este resultado pueda sorprender en un impuesto progresivo como el IRPF, no debemos olvidar que estamos hablando del tipo efectivo de gravamen, es decir, una vez computadas las deducciones aplicables. Los contribuyentes del último grupo, tal y como podemos observar en los cuadros E.1.20. y E.1.21. del anexo, se aplican unos importes y porcentajes de deducciones (sobre todo deducciones por doble imposición) superiores al del grupo anterior, por lo que su tipo efectivo de gravamen disminuye.

1.9. ¿CÓMO SE HAN CLASIFICADO LAS DECLARACIONES?

1.9.1. PRINCIPALES FUENTES DE RENTA

¿Cómo se calcula el impuesto?

En general, el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas tiene en cuenta, por una parte, todos los ingresos y gastos del contribuyente, y por otra, las pérdidas y ganancias por la venta de los bienes patrimoniales. La base liquidable del impuesto es el resultado de la siguiente operación: (rendimientos positivos – rendimientos negativos) + (ganancias patrimoniales – pérdidas patrimoniales).

Por lo tanto, es frecuente que una misma declaración contenga más de una fuente de renta.

Las declaraciones se han clasificado según su principal fuente de renta

Al igual que en años anteriores, hemos clasificado las declaraciones ateniéndonos sólo a las principales fuentes de renta.

Es decir, no hemos tenido en cuenta ni la renta por imputaciones dada su irrelevancia, ni las ganancias y pérdidas patrimoniales por su irregularidad.

Sin embargo, hemos considerado como una sola fuente de renta los rendimientos del capital inmobiliario y los del capital mobiliario, porque están muy relacionados, a pesar de que estén distribuidos desigualmente entre los diferentes colectivos.

Hiru dira errenta iturri nagusiak

Horren arabera, errenta iturri nagusiak hiru hauek dira:

- Lanaren etekinak.
- Jarduera ekonomikoaren etekinak.
- Kapital (higikor + higiezinaren) etekinak.

Hiru talde horietako batean ez dauden aitortpenak “aitortpen mistoak” izeneko taldean sartu ditugu.


Las tres principales fuentes de renta

Así las cosas, las principales fuentes de renta son estas tres:

- Rendimientos de trabajo.
- Rendimientos de actividades económicas.
- Rendimientos de capital (mobiliario + inmobiliario).

Las declaraciones que no pertenecen a ninguno de esos tres grupos las hemos agrupado bajo el nombre de “declaraciones mixtas”.

GRÁFICO 1.20. GRAFIKOA
Aitortpenak errenta iturrien arabera
Declaraciones por fuentes de renta



Ugarienak: lanaren aitortpenak

1.20. grafikoa ikusgai jarri dugu nola banatu diren aitortpenak errenta iturri nagusien arabera 2005. urtean.

Errenta iturri nagusia besteren konturako lana duten aitortpenak dira ugariak, 284.695 aitortpen guztira. Ekitaldian aurkeztutako guztien %80,7 dira.

Erregimen orokorrari lotutako eragiketetan **sortutako kuota** 5.537 milioi eurokoa izan da 2006an. Kuota hori bere oinarri ezargarriarekin erlazionatzen badugu (39.062 milioikoa berau) batez besteko karga tasa lortzen da, urte horretan %14,18koa izan dena.

5.3. CUOTA DEVENGADA, TIPO MEDIO DE GRAVAMEN Y DEDUCCIONES

La **cuota devengada** de las operaciones sujetas al régimen general ha ascendido a 5.537 millones de euros en 2006. Si la relacionamos con su base imponible, 39.062 millones, obtenemos el tipo medio de gravamen, que se ha situado en el 14,18%.


Nolanahi ere, karga tasa hori nabarmen aldatzen da talde batekoa edo bestekoa den:

- %16, %7 eta %4ko zerga tasak biltzen dituen taldean, non 5.060 milioi euroko kuota eta 35.271 milioiko oinarri ezargarria ageri den, batez besteko karga tasa %14,34koa da.
- Baliokidetasun errekaruek 12 milioiko kuota eta 695 milioiko oinarri ezargarria dute, eta beren batez besteko karga tasa %1,75koa da horren ondorioz, gainontzekoena baino askoz txikiagoa.
- Azkenik, batasunaren barruko eskurapenek 465 milioi euroko kuota eta 3.096 milioi euroko oinarri ezargarria lortu dute. Beren batez besteko karga tasa %15,03koa da, epealdiko handiena.

De todas formas, este tipo varía considerablemente dependiendo del grupo al que corresponda:

- El grupo que recoge los tipos impositivos (16%, 7%, y 4%) con una cuota de 5.060 millones de euros, y una base imponible de 35.271 millones, ha obtenido un tipo medio de gravamen del 14,34%.
- Los recargos de equivalencia presentan una cuota de 12 millones y una base imponible de 695 millones, por lo que su tipo medio de gravamen es el 1,75%, muy inferior al resto.
- Las adquisiciones intracomunitarias obtienen una cuota de 465 millones y una base imponible de 3.096 millones. Su tipo medio de gravamen es el 15,03%, el más elevado del ejercicio.

GRÁFICO 5.5. GRAFIKOA
Oinarri ezargarria eta sortutako kuota erregimen orokorrean
Base imponible y cuota devengada en régimen general




2003-2006 epealdian zehar aipatzekoa da batez besteko karga tasaren joerak azken ekitaldian aldatu direla. Horrela:

- Tasa orokorren taldean ikus daiteke oinarri ezargarriak eta sortutako kuotak moteltze joera dutela. Batez besteko karga tasa ere erritmo txikiagoan hazi da, 2006an izan ezik, bi ehunen portzentual jaitsi delako urte horretan.
- Baliokidetasun errekaruen taldean alderantziz gertatu da; alegia, batez besteko karga tasak behera egiten du ekitaldi guztietan, baina azkenekoan aurreko ekitaldiko %1,75eko tasa mantendu du.
- Batasunaren barruko eskurapenen batez besteko tasak ez du joera argirik ageri: lehen bi ekitaldietan tasa berdina dute, hurrengo urtean gora egiten du tasak, eta 2006an bost ehunen jaisten da.

A lo largo del periodo 2003-2006 cabe destacar que las distintas tendencias del tipo medio de gravamen se ven modificadas en el último ejercicio. Así:

- El grupo de los tipos generales muestra una tendencia de desaceleración de su base imponible y de su cuota devengada. El tipo medio de gravamen también crece a menor ritmo, salvo en 2006 que descende en dos centésimas porcentuales.
- En el grupo del recargo de equivalencia ocurre a la inversa y el tipo medio descende en todos los ejercicios hasta el último en el que se mantiene en el 1,75% del ejercicio anterior.
- El tipo medio de las adquisiciones intracomunitarias no presenta una tendencia clara ya que tras obtener la misma tasa en los dos primeros ejercicios, aumenta en el siguiente y descende en cinco centésimas en 2006.

GRÁFICO 5.6. GRAFIKOA
BEZaren kenkariak erregimen orokorrean
Deducciones de IVA en régimen general



2006an 4.624 milioi euroko **kenkariak** aplikatu dira erregimen orokorrean, aurreko ekitaldian baino 254 milioi euro gehiago, eta horrek %5,8ko gehikuntza dakar.

En 2006, las **deducciones** aplicadas en el régimen general han ascendido a 4.624 millones de euros, 254 millones más que en el ejercicio anterior, lo que supone un incremento del 5,8%.

Kenkari motak aztertuta hauxe ikusten da:

- Barne eragiketak garrantzi handikoak dira, epealdian egindako kenkari guztien %86,5 inguru hartzen baitute.
- Kanpo merkataritzarekin lotutakoak %13,4 inguru dira. Zehazki esanda, %9,9 batasunaren barruko eskurapenak eta %3,5 inportazioak.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezietako kenkariak ez dira esanguratsuak, eta beren balioa 2,0 eta 2,2 milioi euro bitartean dabil.


Barne eragiketengatik 2003-2006 epealdian egin diren kenkariak beheranzko hazkunde joera dute: 2004an %14,4 hazi dira, hurrengo urtean %11,2, eta azken ekitaldian %5,5eraino jaitsi da tasa hori.

Analizando los tipos de deducciones, se aprecia:

- La importancia de las operaciones interiores, que a lo largo del periodo representan alrededor del 86,5% del total deducido.
- Las relacionadas con el comercio exterior representan en torno al 13,4%. Concretamente un 9,9% las adquisiciones intracomunitarias y un 3,5% las importaciones.
- Las deducciones de los regímenes especiales de agricultura, ganadería y pesca no son significativas, con un valor que oscila entre 2,0 y 2,2 millones de euros.

La deducción por **operaciones interiores** en el periodo 2003-2006 muestra una tendencia de crecimiento descendente: en 2004 crece un 14,4%, al año siguiente un 11,2% y en el último ejercicio la tasa baja hasta el 5,5%.

GRÁFICO 5.7. GRAFIKOA
Erregimen orokorrean egindako kenkari nagusien bilakaera
Evolución de las deducciones más importantes del régimen general



Kanpo merkataritzarekin lotutako kenkariak gora egiten dute epealdian, 2004an bereziki, salbuespen baka-rra 2005eko inportazioak direlarik. Hona hemen zehazki:

- Inportazioak %17,4 hazten dira 2004an, eta 2005ean behera egiten dute: -%12,2. 2006an gora egiten dute berriro, baina ez erritmo berean: +%2,9.

Las deducciones relacionadas con el **comercio exterior** presentan un crecimiento en el periodo, especialmente en 2004, con la única excepción de las importaciones en 2005. Concretamente:

- Las importaciones en 2004 crecen un 17,4%. En 2005, en cambio, descienden: -12,2%. En 2006 vuelven a crecer pero con menor intensidad: +2,9%.

- Batasunaren barruko eskurapenen kenkariak %11,1 hazten dira 2004an, %8,3 2005ean eta %9,8 2006an.

Sortutako kuotak eta kenkari guztiek (erregimen orokorrekoak eta erregimen erraztukoak) 2003-2006 epealdian izan duten bilakaera konparatzen badugu, honako hau antzeman daiteke:



- Bi kontzeptuetan antzeko bilakaera ageri da: igotza nabarmenagoak 2004an eta moderazioerako joera hurrengo bi ekitaldietan.
- Kenkariak 2006. urtera arte hazi dira kuota baino gehiago, eta urte horretan hazkunde txikiagoa dute: +%5,8 kenkariak eta +%7,1 kuota.

- Las deducciones por adquisiciones intracomunitarias crecen un 11,1% en 2004, un 8,3% en 2005 y mejoran hasta un 9,8% en el último ejercicio.

Si se compara la evolución de la cuota devengada y de las deducciones totales (régimen general y régimen simplificado) para el periodo 2003-2006 se puede apreciar:

- Evolución paralela en ambos conceptos: con aumentos más significativos en 2004 y tendencia a la moderación en los dos ejercicios siguientes.
- El crecimiento de las deducciones ha sido superior al de la cuota hasta 2006, año en que crece en menor medida: +5,8% frente al +7,1% de la cuota.

GRÁFICO 5.8. GRAFIKOA
Sortutako kuotaren eta kenkarien bilakaera
Evolución de la cuota devengada y de las deducciones



Kenkariak oso portzentaje esanguratsua hartzen dute sortutako kuota osoaren gainean, eta nabarmen gutxitzen dute zergaren emaitza. Hara:

- 2003ko ekitaldian, kenkariak %83,5eko proportzioa dute kuotaren gainean (3.484 milioiko kenkariak eta 4.175 milioiko kuota).

Sobre el total de cuota devengada, las deducciones representan un porcentaje importante, lo que produce una considerable disminución del resultado. Así:

- En el ejercicio 2003 la proporción de las deducciones (3.484 millones de euros) sobre la cuota devengada (4.175 millones) era del 83,5%.

- Hurrengo bi ekitaldietan proportzioak gora egiten du: %84,0 2004an eta %84,4 2005ean.
- 2006an kuota kenkariak baino gehiago hazi da, eta horren ondorioz, kenkarien proportzioa puntu portzental bat jaitsi da, sortutako kuotaren %83,4raino.

- En los dos ejercicios siguientes aumenta: al 84,0% en 2004 y al 84,4% del total de cuota devengada en 2005.
- En 2006 la proporción de las deducciones desciende en un punto porcentual hasta el 83,4% de la cuota devengada, debido al mayor crecimiento de esta última frente a las deducciones.

5.4. ZERGAREN EMAITZA

2006ko BEZaren likidazioak 1.431 milioi euroko sarrerak eta 474 milioi euroko itzulketak eman ditu, eta geroko sortzapenak konpentsatzeko erabili diren kopuruetan 35 milioi euroko diferentzia ageri du aurreko urtearen aldean. Sarrerei itzulketak eta konpentsazioen gehikuntza kenduz gero, **Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza** lortzen da. Emaitza hori 922 milioi eurokoa izan da 2006an, aurreko urtean baino 112 milioi euro gehiago, eta horrek %13,9ko bariazio tasa ekarri du, epealdiko handiena.


Nahiz eta **2003-2006 epealdian** Lurralde Historikoari egotzitako emaitza osoa %33,4 igo den, tasak aldatu egiten dira urte batetik bestera:

5.4. RESULTADO DEL IMPUESTO

En 2006 la liquidación del impuesto genera unos ingresos por valor de 1.431 millones de euros, unas devoluciones por importe de 474 millones y una diferencia, con respecto al año anterior, de las cuantías destinadas a compensar futuros devengos del impuesto por importe de 35 millones de euros. El resultado de restar a los ingresos las devoluciones y el incremento de las compensaciones, da lugar al **resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa**, que asciende a 922 millones de euros; una cifra superior en 112 millones a la obtenida en 2005, lo que supone una tasa de variación interanual del 13,9%, la más elevada del periodo.

Aunque a lo largo del **periodo 2003-2006** el resultado total atribuido al Territorio Histórico ha crecido un 33,4%, las tasas han variado de un ejercicio a otro:


GRÁFICO 5.9. GRAFIKOA
Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza
Resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa



- 2004. urtean emaitzak %9,3ko hazkundera du, eta sarrerak (+%8,8) osagai negatiboak baino gehiago hazten dira: itzulketak %7,8 eta konpentsatu beharreko gehikuntzak %3,1.
- 2005. urtean hazkundera txikiagoa da (%7,2). Nahiz eta sarrerak aurreko ekitaldian baino gehiago hazten diren (+%10,5), itzulketak eta konpentsatu beharreko gehikuntzak proportzio handiagoan gehitzen dira, +%15,7 lehenengoak eta +%37,6 bigarrenak.
- 2006an %13,9raino hobetu da emaitzaren hazkundera, eta bere hiru osagaietan antzekoak dira hazkunde tasak: +%14,0 sarreretan, +%13,9 itzulketetan, eta +%19,1 konpentsatu beharreko gehikuntzan.

- En 2004 el resultado crece un 9,3% con un aumento de los ingresos (+8,8%) superior al de los componentes negativos: 7,8% las devoluciones y 3,1% los incrementos a compensar.
- En 2005 presenta un crecimiento menor (7,2%). Aunque los ingresos aumentan más que en el ejercicio anterior (+10,5%), tanto las devoluciones (+15,7%) como el incremento a compensar (+37,6%) lo hacen en mayor proporción.
- El crecimiento del resultado en 2006 mejora hasta el 13,9%, con tasas de crecimiento similares en sus tres componentes: ingresos +14,0%, devoluciones +13,9% e incremento a compensar +19,1%.

GRÁFICO 5.10. GRAFIKOA
Emaitzaren bilakaera
Evolución del resultado



Emaitzaren osagaiak aztertuta, hauxe azpimarratu daiteke:

- Konpentsatu beharreko gehikuntzak hiru ekitaldian hazi dira: %3,1 2004an, eta zerbait gehiago 2005ean (+%37,6), nahiz eta 2006an moderatu egiten den (+%19,1).
- Itzulketak ez dira hain gorabeheratsuak: +%7,8 2004an eta horren bikoitza 2005ean (+%15,7). Azken ekitaldian hazkunde moderatuagoa dute (+%13,9).
- Sarreretan etengabeko hazkundera dago eta igoera homogeenagoa da: %8,7 2004an, %10,5 2005ean eta %14,0 azken ekitaldian.

Analizando los **componentes del resultado**:

- Los incrementos a compensar presentan aumentos en los tres ejercicios: 3,1% en 2004, más elevado en 2005 (+37,6%) y vuelve a moderarse en 2006 (+19,1%).
- Las devoluciones registran menos altibajos: +7,8% en 2004, el doble en 2005 (+15,7%) y se modera hasta el 13,9% en el último ejercicio.
- Los ingresos siguen una senda de crecimiento continuo y más homogéneo: 8,7% en 2004, 10,5% en 2005 y 14,0% en el último ejercicio.

Lurralde Historikoaren emaitza subjektu pasiboek erabilitako tributazio erregimenaren arabera aztertzen badugu, ohartu gaitezke 2005eko hazkundera bi erregimenetan izandako gehikuntzari zor zaiola: +%13,8 erregimen orokorrean eta +%18,7 erregimen erraztuan.

Bi erregimen horiek homogeneizatze aldera, eta batera eta bestera bildutako zergadun kopuruan alde handia dagoenez, emaitzaren bilakaera **zergadun bakoitzeko batez besteko emaitzan** oinarrituta kontrastatu dugu. Horrela, diferentzia adierazgarriak antzeman ditugu:

- Aitortzaile bakoitzeko batez besteko zenbatekoan: erregimen orokorrak hamalau milioi eurotik gorako emaitza erakusten duen bitartean, erregimen erraztuan aitortu duten zergadunen batez bestekoa mila eta hirurehun inguruan dabil.
- Bilakaeran: erregimen erraztuan egindako aitopenen batez besteko emaitzak beheranzko joera ageri du, eta tasa negatiboak daude. 2006. urtean joera apurto egiten da eta %17,2ko hazkundera du emaitzak. Bitartean, erregimen orokorrak ekitaldi guztietan ditu igoerak, handiena 2006an.

Ikus dezagun erregimen orokorraren barruan zein izan den **lortutako emaitza osoa aitortzaile motaren arabera**:

- Enpresa handiak erregimen orokorrean aitortu duten guztien %1,7 baino ez izan arren, erregimen horretako emaitzaren %40,2 metatu dute 2006an. 2004an %3,6 jaitsi eta gero, azken bi ekitaldietan hazkunde tasa positiboak izan dituzte: %7,5 eta %2,5 hurrenez hurren.
- Esportatzaileek eta beste operadore ekonomiko erregistratuek osatutako taldea –erregimen orokorrean hilerok aitortzen duenak– emaitza positiboa izan du lehenengo aldiz (5 milioi euro): sarrerak (277 milioi) itzuli beharreko zenbatekoa baino handiagoak izan dira (273 milioi), eta konpentsatu beharreko gehikuntzaren beherakada (1 milioi) onuragarri gertatu zaie. Emaitza hori 2005ean lortutakoa baino %107,9 handiagoa da.
- Erregimen orokorrera bildutako gainerakoak erregimen horretako aitortzaileen %96,7 dira, eta zenbatekorik handiena metatzen dute emaitzari dago-kionez: %59,1. Hiru ekitaldietan hazkunde tasak ditu: %11,2 2004an, %7,3 2005ean, eta %7,6 azken ekitaldian.

Si analizamos el resultado del Territorio Histórico según el régimen tributario bajo el que declaran los sujetos pasivos, el aumento en 2005 obedece al incremento producido en ambos regímenes: tanto en el régimen general (13,8%) como en el simplificado (+18,7%).

Para homogeneizar estos dos regímenes, dada la gran diferencia en cuanto al número de contribuyentes que se acogen a uno o a otro, la evolución de su resultado la contrastamos en base al **resultado medio por contribuyente**. Así, apreciamos diferencias significativas:


- En la cuantía media por declarante: frente a un resultado superior a los catorce mil euros en el régimen general, la media de los contribuyentes del régimen simplificado se sitúa en mil trescientos euros.
- En la evolución: el resultado medio de las declaraciones sujetas al régimen simplificado muestra una tendencia descendiente, con tasas negativas, que se rompe en 2006 al crecer un +17,2%. Mientras, el régimen general muestra un crecimiento en todos los ejercicios, el mayor en 2006.

Distinguimos dentro del régimen general, el **resultado total obtenido por los distintos tipos de declarantes**:

- Las grandes empresas, que representan sólo el 1,7% del total de declarantes del régimen general, concentran en 2006 el 40,2% del resultado del referido régimen. Tras descender un 3,6% en 2004, muestran tasas de crecimiento positivas en los dos últimos ejercicios: 7,5% y 2,5% respectivamente.
- El grupo de los exportadores y otros operadores económicos registrados, que bajo el régimen general presentan sus declaraciones mensualmente, han obtenido por primera vez un resultado positivo (5 millones de euros): los ingresos (277 millones) han superado al importe a devolver (273 millones) y se han beneficiado del descenso (1 millón) del incremento a compensar. Este resultado es un 107,9% superior al obtenido en 2005.
- El resto sujeto a régimen general recoge el 96,7% de los declarantes de dicho régimen y acumula la mayor cuantía en cuanto al resultado: el 59,1%. Muestra tasas de crecimiento en los tres ejercicios: 11,2% en 2004, 7,3% en 2005 y 7,6% en el último ejercicio.

GRÁFICO 5.11. GRAFIKOA

Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza tributazio erregimenaren arabera Resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa según el régimen de tributación



5.5. ESPORTATZAILEEN ALDEKO ITZULKETAK

Zergaren araudiak ezartzen duenez, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten subjektu pasiboek eskubidea izango dute likidazio-aldi bakoitzaren amaieran beren alde ateratzen den saldoa berreskuratzeko (gehienek hileko aitortpena egiten dute). Hori bai, epealdiko eragiketen zenbateko osoari BEZaren zerga tasa orokorra aplikatuz ateratzen den mugaraino egingo zaie itzulketa. Honako baldintzak bete behar dituzte, dela aurreko lehen urte naturalean, dela dauden urte naturalean zehar:

- Esportazio eragiketak edo erregelamenduan zehazki aipatutakoak eginak izatea eta haien zenbateko globalak 120.202,42 euroko kopurua gainditzea.
- Esportatzaileen eta bestelako operadore ekonomikoaren erregistroan inskribatuta egotea edo bertan inskribatzea.

Zergaren mekanika dela-eta, abenduan jauzi bat gertatzen da itzulketa eskaeren kopuruan. Bi dira horren arrazoiak:

- Abendua likidazio-aldiko azken hilabetea da, eta hil horretan ez dago itzulketarako mugarik.
- Gainera, ekitaldian zehar konpentsatu beharreko saldoak ekartzea erabakitzen dutenen eskaerak une horretan metatzen dira.

Horren ondorioz, aztertutako urte guztietan zergaren portaera 2006. urtekoaren parekoa da. Abenduan goraldi bat dago, baina urtarrean eta abuztuan zenbate-

5.5. DEVOLUCIONES A EXPORTADORES

En base a la normativa del impuesto, los sujetos pasivos que reúnan determinados requisitos tendrán derecho a la devolución del saldo a su favor existente al término de cada periodo de liquidación (en su mayoría presentan declaración mensual) hasta el límite resultante de aplicar el tipo impositivo general del impuesto al importe total, en dicho periodo, de determinadas operaciones. Los requisitos que deben cumplir, durante el año natural inmediato anterior o durante el año natural en curso, son los siguientes:


- Haber realizado determinadas operaciones, de exportación y otras concretas recogidas en el reglamento, por un importe global superior a 120.202,42 euros
- Estar inscritos o inscribirse en el Registro de Exportadores y otros Operadores Económicos.

Debido a la mecánica del impuesto, en el mes de diciembre se produce un salto en el número de solicitudes de devolución. Esto obedece a dos motivos:

- Diciembre es el último mes del periodo de liquidación y en él no existe límite a la devolución.
- Además, se concentra en ese momento la solicitud de aquellos que han optado por arrastrar saldos a compensar a lo largo del ejercicio.

Por ello, en todos los años analizados, el comportamiento del impuesto tiene una distribución similar a la correspondiente al ejercicio 2006. Junto con el repunte de

GRÁFICO 5.12. GRAFIKOA
Esportatzaileei itzultitako BEZaren bilakaera sortzapen hilabeteen arabera
Evolución de las devoluciones de IVA a exportadores y por meses de devengo



koa jaitsi egiten da. Lehenengoan, urtearen hasiera delako, eta bigarreanean, jarduera opor garaian murrizten delako.

2003-2006 epealdian igoerak daude bai eskaera kopuruan eta bai itzulketen zenbatekoan, beren hazkunde tasak bide desberdinetatik joan badira ere:

- 2004an eskaerak %4,7 gehitzen dira, 2005ean tasa hori %5,8raino igotzen da, eta 2006an %3,9ko hazkundea dute.
- Itzulketen zenbatekoak oso hazkunde txikia du 2004an (+%0,8). 2005ean igoera nabarmena dago (%23,4), eta azken ekitaldian tasa %6,6raino moderatzen da.

Bi osagaiak konparatuz gero, agerian geratzen da epealdi honetan itzulketen zenbatekoak izan duen hazkundea (%32,7) aurkeztutako itzulketa eskaeren hazkundea (%15,1) baino handiagoa dela.

diciembre, hay dos meses que presentan una menor cuantía: enero y agosto. El primero, por ser el inicio del año; y el segundo, por ser menor la actividad en vacaciones.

A lo largo del periodo 2003-2006 aumentan tanto el número de solicitudes como el importe de las devoluciones, aunque sus tasas de crecimiento presentan un comportamiento dispar:

- Las solicitudes se incrementan en 2004 un 4,7%, en 2005 mejora la tasa hasta el 5,8% y en 2006 crece un 3,9%.
- La cuantía de las devoluciones apenas crece en 2004 (+0,8%), en 2005 aumenta de forma significativa (+23,4%) y en el último ejercicio la tasa se modera hasta el 6,6%.

Si comparamos ambos componentes a lo largo del periodo, se observa que el incremento de la cuantía (32,7%) es superior al crecimiento del número de solicitudes de devolución presentadas (15,1%).

5.6. BEZA AITORTZAILE MOTAREN ARABERA

2006ko ekitaldian, gainerako ekitaldietan bezalaxe, aitortzaile mota bakoitzak duen garrantzia nabarmen aldatzen da zergaren zein elementu aztertzen dugun.

Zergadun kopuruari dagokionez:

- Kopururik handiena pertsona fisikoek biltzen dute: 38.467 zergadun guztira (kopuru osoaren %61,1).
- Bigarren tokian erantzukizun mugatuko sozietateak daude (%24,1).
- Atzetik, ondasun komunitateak (%7,0) eta sozietate anonimoak datoz (%4,5).

Ekitaldiko **oinarri ezargarria** 39.062 milioi eurokoa da, eta zergadun kopuruarekin alderatuta banaketa desberdina du taldeen artean. Hau da, zenbatekorik handienak sozietate mota desberdinetan ageri dira: oinarri ezargarri osoaren %42,4 sozietate anonimoena da, %40,7 erantzukizun mugatuko sozietateena, eta %9,9 kooperatibena. Pertsona fisikoek, kopuruz ugariak izan arren, oinarri ezargarri osoaren %3,5 baino ez dute hartzen.

Sortutako kuota 5.553 milioi eurokoa da, eta subjektu pasibo desberdinen partaidetza portzentajea oinarri ezargarrian bezala banatzen da: %95,5 sozietateetan, %0,9 ondasun komunitateetan, eta gainerako %3,5a pertsona fisikoetan.

Kenkariak aplikatu eta behar den banaketa egin ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako **emaitza** 922 milioi eurokoa da. Kopuru horretatik:

- %44,3 (408 milioi), erantzukizun mugatuko sozietateek sortua da.
- %42,4 (391 milioi), sozietate anonimoetatik dator.
- %9,9 (91 milioi euro), pertsona fisikoei dagokie.
- %2,3 (21 milioi), ondasun komunitateei.
- %1,1 (11 milioi euro), kooperatibetatik dator.
- Azkenik, gainerako sozietateek emaitza negatiboa dute (-125 mila euro).

5.6. IVA SEGÚN TIPO DE DECLARANTE

En el ejercicio 2006, al igual que en el resto de los años, la importancia o representatividad de cada tipo de declarante varía mucho dependiendo de qué elemento del impuesto analicemos.

En el número de **contribuyentes**:

- El tipo de declarante que mayor número concentra es el de las personas físicas: 38.467 contribuyentes (el 61,1% del total).
- El segundo en importancia es el de las sociedades de responsabilidad limitada (24,1%).
- Le siguen las comunidades de bienes (7,0%) y las sociedades anónimas (4,5%).


La **base imponible** del ejercicio asciende a 39.062 millones de euros y su distribución entre los distintos grupos es distinta a la del número de contribuyentes. Esto es, las mayores cuantías se concentran en los diferentes tipos de sociedades: el 42,4% del total de la base imponible corresponde a las sociedades anónimas, el 40,7% a las sociedades de responsabilidad limitada, y el 9,9% a las cooperativas. Las personas físicas, aun siendo las más numerosas, representan sólo el 3,5% del total de la base imponible.

La **cuota devengada** ha alcanzado los 5.553 millones de euros, y el porcentaje de participación de los distintos tipos de sujetos pasivos es similar al de la base imponible concentrándose el 95,5% en las sociedades, un 0,9% en las comunidades de bienes, y el restante 3,5% en las personas físicas.

Después de aplicar las deducciones y de realizar la distribución correspondiente, el **resultado** atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa ha sido de 922 millones de euros. De dicha cuantía:

- El 44,3%, 408 millones, es de las sociedades de responsabilidad limitada.
- El 42,4%, 391 millones, proviene de las sociedades anónimas.
- El 9,9%, 91 millones de euros, corresponde a las personas físicas.
- El 2,3%, 21 millones, a las comunidades de bienes.
- El 1,1%, 11 millones de euros, a las cooperativas.
- Y finalmente, el resto de sociedades obtienen un resultado negativo (-125 miles de euros).

GRÁFICO 5.13. GRAFIKOA
BEZa aitortzaile motaren arabera
IVA según tipo de declarante



5.7. BEZA JARDUERA SEKTOREEN ARABERA

Zergadun kopurua, oinarri ezargarria, sortutako kuota eta Gipuzkoari dagokion emaitza sektoreka banatuz gero, 2006ko ekitaldia aurreko urtearen ildo beretik dator.

Zergadun kopuruari dagokionez, banaketa hau dugu sektoreka:

- Zerbitzuek kopururik handiena hartzen dute (kopuru osoaren %49,0). Horietan merkataritza eta merkataritzako beste zerbitzu batzuk nagusitzen dira, bien artean sektoreko aitortzaile guztien %87,2 metatzen dutelako.
- Eraikuntzak aitortzaile kopuru osoaren %10,1 hartzen du.
- Industriak zerbait gutxiago, %8,4. Sektore honetan aitortzaile kopururik handiena biltzen duen adarra metalgaiena da (1.132 aitortzaile).

Ekitaldiko **oinarri ezargarria** zerbitzuetan eta industrian banatzen da gehienbat. Hona hemen zehazki:

5.7. IVA POR SECTORES DE ACTIVIDAD

En el ejercicio 2006, la distribución por sectores del número de contribuyentes, de la base imponible, de la cuota devengada y del resultado correspondiente a Gipuzkoa se mantiene de forma similar al año anterior.

En cuanto al número de **contribuyentes**, la distribución por sectores es la siguiente:

- La actividad con mayor número corresponde a los servicios, que concentran el 49,0% del total. De entre éstos destacan el comercio y otros servicios comerciales ya que entre ambos concentran el 87,2% del total de declarantes del sector.
- La construcción representa el 10,1% del total de declarantes.
- La industria, algo menos, el 8,4%. En este sector la rama de artículos metálicos, con 1.132 declarantes, concentra el mayor número de contribuyentes.

La **base imponible** del ejercicio se reparte en su mayoría entre los servicios y la industria. Concretamente:

- %52,7 zerbitzuetan metatzen da. Sektore honen barruan, merkataritza nabarmentzen da, 11.799 milioi euroko oinarri ezargarria baitu (sektorearen %57,3). Bigarren tokian merkataritzako beste zerbitzu batzuk daude, 5.425 milioi euroko oinarri ezargarriarekin (sektorearen %26,4).
- %37,8 industriari dagokio. Haren barruan, oinarritzko metalgintzak lortu du oinarri ezagarririk handiena, eta atzetik metalgaiak, makineria eta material elektrikoa datoz.
- Azkenik, eraikuntzak, 3.268 milioi euroekin, oinarri ezargarri osoaren %8,4 hartzen du.

Sortutako kuota oinarri ezagarraren banaketa bera du, industriaren eta zerbitzu sektorearen artean dagoen aldea txikiagoa bada ere: zerbitzuek kuota osoaren %49,9 biltzen dute eta industriak %40,8.

Sektore bakoitzaren barruan, adar bakoitzak duen partaidetzaren banaketa portzentualak ia ez du diferentziarik oinarri ezagarraren banaketarekin alderatuta.

Eraikuntzak ere antzeko portzentajea erakusten du, sortutako kuota osoaren %8,2 hartzen duelako.


- El 52,7% se concentra en los servicios. Entre ellos destaca el comercio: su base imponible alcanza el 57,3% del sector (11.799 millones de euros). Le sigue la rama de otros servicios comerciales, con una base imponible de 5.425 millones (26,4% del sector).
- El 37,8% corresponde a la industria. Dentro de ella, la base imponible más elevada es la de las metálicas básicas, seguidas de los artículos metálicos, la maquinaria y del material eléctrico.
- Finalmente, la construcción representa el 8,4% de la base imponible total (3.268 millones de euros)

La **cuota devengada** mantiene la misma distribución que la base imponible, si bien la diferencia entre la industria y el sector servicios es inferior: los servicios concentran el 49,9% del total de la cuota, frente al 40,8% que representa la industria.

Dentro de cada sector la distribución porcentual de la participación de cada rama no presenta apenas diferencias con respecto a la distribución de la base imponible.

La construcción mantiene también un porcentaje similar, al representar el 8,2% del total de la cuota devengada.

GRÁFICO 5.14. GRAFIKOA
BEZa jarduera sektoreen arabera
IVA por sectores de actividad



Gipuzkoari egotzitako **emaitzaren** banaketa aldatu egiten da zerbait aurreko kontzeptuen aldean:

- Zerbitzuen sektorea da berriz ere ekarpen gehien duena, eta %67,7raino gehitzen du bere partaidetza.
- Industria %29,2raino jaisten da.
- Eraikuntzak %9,3ko partaidetza du emaitza osoan.

Zerbitzuen sektorean merkataritzako beste zerbitzu batzuek dute emaitzarik handiena, eta atzetik merkataritzaren adarra dago.

Industrian apenas aldatzen da barruko banaketa:

- Oinarrizko metalgintzak lortu du zenbatekorik handiena (83 milioi euroko emaitza).
- Bigarren adarrik garrantzitsuen metalgaiena da (49 milioi euroko emaitza).
- Hirugarren tokia material elektrikoaren adarrak hartzen du: 38 milioi euro.

Zergaren emaitza jarduera sektoreen arabera banatu eta 2003-2006 epealdian izan duen bilakaerari erreparaturaz gero, agerian jartzen da industriaren eta zerbitzuen sektoreek garrantzi handia dutela; aldiz, lehen sektoreak oso partaidetza txikia du zergan.

5.15 grafikoa ikus daitekeenez, zerbitzuen sektoreak hartzen du zergan pisurik handiena. Gainera, hazkunde jarraitua du epealdian: 2003ko emaitza 479 milioi eurokoa izatetik 624 milioi euro izatera pasa da 2006an, hau da, 145 milioi euro gehiago (%30,2). Horrez gain, hazkunde tasek joera uniformea dute: %0,6 baino ez 2004an, %10,0 2005ean eta %17,6 2006an.

Aldiz, bigarren sektoreak oso tasa aldakorak ditu: 2004an %52,8 hazi ondoren, 2005ean bere emaitzak behera egiten du (-%9,8), eta azken ekitaldian berriro hazten da: +%12,7.

Eraikuntza sektoreak, beste bi sektoreak baino garrantzi txikiagoa duenak, gorabeherak ditu baita ere epealdian: -%18,5 (2004an), +%34,1 (2005ean), eta +%1,5 baino ez (2006an).

La distribución del **resultado** atribuido a Gipuzkoa varía ligeramente con respecto a los conceptos anteriores:

- El sector servicios sigue siendo el de mayor aportación, y aumenta su participación hasta el 67,7%.
- La industria disminuye hasta un 29,2%.
- La construcción se eleva a un 9,3% del total del resultado.

Dentro del sector servicios, otros servicios comerciales es la rama con mayor resultado, seguida del comercio.

En la industria apenas varía su distribución interna:

- La rama de mayor cuantía es la de metálicas básicas, con un resultado que asciende a 83 millones de euros.
- La segunda rama en importancia es la de artículos metálicos, con un resultado que asciende a 49 millones de euros
- El tercer lugar lo ocupa material eléctrico con un resultado de 38 millones de euros.

La evolución del resultado del impuesto distribuido por sectores de actividad a lo largo del periodo 2003-2006 pone de manifiesto la gran representatividad de los sectores industrial y de servicios así como la poca participación del sector primario en el impuesto.

En el gráfico 5.15. se puede apreciar que el sector servicios es el de mayor peso del impuesto. Además mantiene un crecimiento continuo en el periodo: pasa de 479 millones de euros en 2003 a 624 millones en 2006, incrementando su resultado en 145 millones, un 30,2%. Además, las tasas de crecimiento muestran una tendencia de crecimiento uniforme: de apenas crecer el 0,6% en 2004 pasa al 10,0% en 2005 y al 17,6% en 2006.

El segundo sector, en cambio, presenta tasas muy variables: tras aumentar su resultado en un 52,8 % durante 2004, desciende en 2005 (-9,8%) y vuelve a aumentar en el último ejercicio: +12,7%.

El sector de la construcción, de menor importancia que los otros dos, también presenta altibajos en el periodo: desciende un 18,5% en 2004, crece un 34,1% en 2005 y sólo un 1,5% en 2006.

GRÁFICO 5.15. GRAFIKOA
Gipuzkoari egotzitako emaitza
Resultado atribuido a Gipuzkoa




GRÁFICO 5.16. GRAFIKOA
Industri sektorearen emaitza adarren arabera
Resultado del sector industrial por ramas





GRÁFICO 5.17. GRAFIKOA
Zerbitzuen sektorearen emaitza adarren arabera
Resultado del sector servicios por ramas



Industriak eta zerbitzuen sektoreak duten garrantzia dela-eta, jarraian aztertuko dugu zenbateko eragina duen jarduera adar bakoitzak zein bere sektorean, eta nolako bilakaera izan duten 2003-2006 laurtekoan.

Industria sektorean biltzen diren hamalau jarduera adarrek oso bilakaera desberdina dute. Hona hemen 2006an gertatutakoa:

- Zazpi taldek emaitza handitu dute:

- Garraio-materiala (%90,7)
- Elikagaiak (%47,2)
- Oinarritzko metalgintza (%29,7)
- Material elektrikoa (%29,1)
- Metalgaiak (%28,0)
- Industria ez-metalikoak (%14,4)
- Zura eta altzariak (%7,2)

Horien artean, oinarritzko metalgintzak izan du hazkunde kuantitatiborik handiena (19 milioi euro gehiago). Gorantz egin duen talde horren barruan, nabarmentzekoa da lehen bi adarrek emaitza negatiboak dituztela bai azken ekitaldian eta bai epealdian zehar.

- Gainerako adarrak jaitsi egin dira, eta batik bat:
- Makineria: emaitza %89,1 txikiagoa da, eta kuantitatiboki gehien jaitsi den adarra ere bada hau (-19,7 milioi euro).
- Papera eta grafikak: emaitza 4,2 milioi euro txikiagoa da, hau da, %18,7 jaitsi da.
- Metalezko eraikuntzak: %18,5 jaitsi da.

Adarren epealdiko bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke ez dagoela hazkunde joera konstanterik inongo adarretan. Hau da, azken hiru ekitaldietan adar batek berak ere ez du hazkunde jarraiturik izan. Hala ere, energia eta uraren adarrak beherazko joera du etengabe, eta epealdi osoan tasa negatiboak dituen bakarra da.

Zerbitzuen sektorea sei jarduera adarretan banatzen da, eta horietako bitan bakarrik jaitsi da emaitza:

- Banka eta aseguruak (-%106,5)
- Herri administrazioak (-%67,2)

Gainerako jarduerak gora egin dute, eta hazkunde handiena, bai kopuruz eta bai portzentajeaz, merkataritzako beste zerbitzu batzuen adarrean gertatu da: +56.929 milioi euro eta +%25,9. Gehien hazi den bigarren adarra

Dada la representatividad de los sectores industrial y de servicios, vamos a analizar la contribución de cada rama de actividad dentro de su sector correspondiente, así como su evolución en el cuatrienio 2003-2006.

Las catorce ramas de actividad del **sector industrial** tienen muy distinta evolución. En 2006 hay:

- Siete grupos que presentan un crecimiento en su resultado:

- Material de transporte (90,7%)
- Alimentación (47,2%)
- Metálicas básicas (29,7%)
- Material eléctrico (29,1%)
- Artículos metálicos (28,0%)
- Industrias no metálicas (14,4%)
- Madera y muebles (7,2%)

De entre ellos, la rama con mayor aumento cuantitativo es metálicas básicas, con 19 millones de euros más. Dentro de este grupo de crecimiento destaca que las dos primeras ramas mantienen resultados negativos tanto en este último ejercicio como a lo largo del periodo.

- El resto de las ramas descienden, destacando:
- Maquinaria: decrece en un 89,1%, siendo también la rama con mayor descenso cuantitativo (-19,7 millones de euros).
- Papel y gráficas: desciende un 18,7% al disminuir su resultado en 4,2 millones de euros.
- Construcciones metálicas: desciende un 18,5%.

Atendiendo a la evolución de las distintas ramas en el periodo, cabe resaltar que no hay ramas con una tendencia constante de crecimiento, es decir, ninguna rama ha crecido de forma consecutiva en los tres ejercicios del periodo. Sin embargo, la rama de energía y agua presenta una tendencia constante descendente, siendo la única con tasas negativas a lo largo del periodo.

El **sector servicios** está distribuido en seis ramas de actividad, de ellas sólo en dos desciende el resultado:

- Banca y seguros (-106,5%)
- Administraciones públicas (-67,2%)

El resto de las actividades aumenta, siendo otros servicios comerciales la rama con mayor crecimiento tanto cuantitativo (+56.929 miles de euros) como porcentual (+25,9%). La segunda rama con mayor incremento es

merkataritza da: +32.209 mila euro eta +%14,3. Urrutia-go hauek daude: garraio eta komunikazioak (+4.305 mila euro) eta merkataritzakoak ez diren beste zerbitzu batzuk (+3.959 mila euro).

Ekitaldi honetan nabarmentzekoa da, aurreneko aldiz, emaitzarik handiena ez dela merkataritzan izan: merkataritzako beste zerbitzu batzuetakoa nagusitu zaio. Horrela, merkataritzan 257 milioi euroko emaitza izan da, eta merkataritzako beste zerbitzu batzuetan, berriz, 277 milioikoa, 20 milioi gehiago.

Bi adar nagusiek hazkunde jarraitua izan dute epealdian zehar, nahiz eta merkataritza lehen urtean jaitsi den:

- Merkataritza %26,7 hazi da lau urte hauetan. 2004an bakarrik egin du behera (-%9,9).
- Merkataritzako beste zerbitzu batzuk %44,6 hazi dira.

la de comercio: +32.209 miles de euros y un +14,3%. Más alejadas se encuentran transportes y comunicaciones (+4.305 miles) y otros servicios no comerciales (+3.959 miles de euros).

En este ejercicio cabe señalar que, por primera vez, el comercio no es la rama con mayor resultado: se ha visto superado por otros servicios comerciales. Así, mientras la primera asciende a 257 millones de euros la segunda supera en 20 millones dicha cuantía hasta alcanzar los 277 millones de euros.

A lo largo del periodo las dos principales ramas han mostrado un crecimiento continuado aunque el comercio descende en el primer año:

- El comercio ha crecido un 26,7% en estos cuatro años. Sólo en 2004 presenta un descenso (-9,9%).
- Otros servicios comerciales ha crecido un 44,6% en el periodo.

ARAUDIAREN ERANSKINA

Hona hemen 2006ko ekitaldian araudiak izan dituen aldaketa nagusiak:

- **EHA/3718/2005 Agindua**, azaroaren 28koa, PFEZren zenbatespen objektiboaren metodoa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztua 2006. urterako garatu eta zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuko amortizazio taula nekazari-tza eta abeltzaintza jardueretarako aldatzen duena.
- **EHA/4040/2005 Agindua**, abenduaren 21ekoa, Europar Batasuneko herrialdeen artean egindako ondasun trukeen estatistika-mugak 2006rako ezartzen dituena. Muga horien azpitik ez dago Intrastat sistemari informazioa emateko obligaziorik. 140.000 eurotan finkatu da 2006an salbuespen muga.
- **Zerga Alorreko Presazko 1/2006 Foru Dekretu Araua**, otsailaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 30/2005 Legeak eta 1/2006 eta 2/2006 Errege Lege-Dekretuek lurralde komunean sartutako aldaketetara egokitzekoa. Hauek dira aldaketa nagusiak:
 - irrati eta telebista digitaleko zerbitzuak hornitu eta jasotzeagatik %7ko tasa murriztua aplikatuko dela ezartzen da.
 - aplikazio eremua zabaltzen da etxebizitzaren errentamendurako aurreikusita dagoen salbuespenari dagokionez.
- **EHA/493/2006 Agindua**, otsailaren 27koa, honako agindua aldatzekoa: EHA/3718/2005 Agindua, azaroaren 28koa, PFEZren zenbatespen objektiboaren metodoa eta BEZaren erregimen berezi erraztua garatzen dituena. Aldaketaren helburua da neurri berriak sartzea gasolioaren prezioak 2005ean eta 2006an izandako eragina arintzeko.
- **Zerga Alorreko Presazko 2/2006 Foru Dekretu Araua**, maiatzaren 23koa. Haren bitartez, BEZaren Legea egokitzeari buruzko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzen da. Honako aldaketak sartu ditu:

ANEXO NORMATIVO

Las principales modificaciones normativas a lo largo del ejercicio 2006 han sido las siguientes:

- **Orden EHA/3718/2005**, de 28 de noviembre, por la que se desarrollan para el año 2006 el método de estimación objetiva del IRPF y el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido y se modifica para las actividades agrícolas y ganaderas la tabla de amortización de la modalidad simplificada del método de estimación directa.
- **Orden EHA/4040/2005**, de 21 de diciembre, por la que se fijan umbrales relativos a las estadísticas de intercambios de bienes entre Estados miembros de la Unión Europea para el año 2006. Por debajo de dicho límite no existe la obligación de facilitar información Intrastat. En 2006 el umbral de exención se fija en 140.000 euros.
- **Decreto Foral Norma de Urgencia Fiscal 1/2006**, de 21 de febrero, por la que se adapta la normativa tributaria del THG a determinadas modificaciones introducidas en territorio común por la Ley 30/2005 y los Reales Decretos Ley 1/2006 y 2/2006. Las principales modificaciones son las siguientes:
 - se establece la aplicación del tipo reducido del 7% al suministro y recepción de servicios de radiodifusión digital y televisión digital.
 - se amplía el ámbito de aplicación de la exención prevista para el arrendamiento de vivienda.
- **Orden EHA/493/2006**, de 27 de febrero, por la que se modifica la Orden EHA/3718/2005, de 28 de noviembre, por la que se desarrolla para 2006 el método de estimación objetiva del IRPF y el régimen especial simplificado del IVA. La finalidad de esta modificación es introducir nuevas medidas para paliar el efecto producido por el precio del gasóleo en 2005 y 2006.
- **Decreto Foral Norma de Urgencia Fiscal 2/2006**, de 23 de mayo, por el que se adapta el Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del IVA, a las modificaciones introducidas en las Leyes 3/2006, 4/2006 y 6/2006 con relación al referido impuesto. Se introducen las siguientes modificaciones:

- hainbanaketa erregelaren aplikazioa 2006/01/01etik aurrera aldatzen da, diru laguntzak jasotzean kenkarako eskubideak dituen mugak kentzen direlako.
- minusbaliatuak garraiatzeko ibilgailuaren kontzeptua argitzen da, tasarik murriztuena 2006/04/26tik aurrera aplikatzearen ondorioetarako.
- nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezian 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduko diren konpentsazioetan gehitu egiten dira oro harreko konpentsazioaren portzentajeak.
- **1/2006 Foru Dekretu Araua**, urriaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 25/2006 eta 26/2006 Legeek lurralde erkidean sartutako zerga aldaketetara egokitzen duena. BEZari dagokionez, 2006ko uztailaren 19tik aurrera aldatu egiten da aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketetarako aurreikusita dagoen salbuespena, bere aplikazio eremua objektiboagoa eginez.
- se modifica la aplicación de la regla de prorata desde el 01/01/2006, eliminándose toda limitación del derecho a la deducción como consecuencia de la percepción de subvenciones.
- se clarifica el concepto de vehículo destinado al transporte de personas con minusvalía, a efectos de aplicación del tipo superreducido con efectos desde el 26/04/2006.
- se incrementan los porcentajes de la compensación a tanto alzado del régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca, de aplicación a las compensaciones a pagar desde el 1 de enero de 2006.
- **Decreto Foral Norma 1/2006**, de 24 de octubre, por la que se adapta la normativa tributaria del THG a determinadas modificaciones tributarias de territorio común incluidas en las Leyes 25 y 26 de 2006. En lo que se refiere al IVA se modifica, con efectos desde el 19 de julio de 2006, la exención prevista para las operaciones de seguro, reaseguro y capitalización, objetivándose su ámbito de aplicación.

E.5.1. TAULA ERREGIMEN OROKORREKO OINARRI EZARGARRIEN BANAKETA KARGA TASAREN ARABERA
CUADRO E.5.1. DISTRIBUCIÓN DE BASES IMPONIBLES EN RÉGIMEN GENERAL SEGÚN TIPO DE GRAVAMEN

OINARRI EZARGARRIA	BASE IMPONIBLE	2006		2005		06/05
		Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	%
Oinarri Ezargarria % 16	Base Imponible 16 %	29.103.362	74,5	27.271.741	74,7	6,7
Oinarri Ezargarria % 7	Base Imponible 7 %	5.187.309	13,3	4.768.768	13,1	8,8
Oinarri Ezargarria % 4	Base Imponible 4 %	980.377	2,5	944.311	2,6	3,8
Tasa orokorren OE	B.I. Tipos generales	35.271.048	90,3	32.984.820	90,4	6,9
Baliok.Errek.O.Ezarg. % 4	B.Imp. Rec. Equiv. 4 %	157.475	0,4	154.228	0,4	2,1
Baliok.Errek.O.Ezarg. % 1	B.Imp. Rec. Equiv. 1 %	336.443	0,9	336.395	0,9	0,0
Baliok.Errek.O.Ezarg. % 0,5	B.Imp. Rec. Equiv. 0,5%	200.771	0,5	198.144	0,5	1,3
Baliok. Errekarguen OE	B.I. Rec. Equivalencia	694.689	1,8	688.767	1,9	0,9
Batasun barruko eskurapenen OE	B.I. Adq. Intracomunit.	3.096.075	7,9	2.812.329	7,7	10,1
GUZTIRA	TOTAL	39.061.812	100,0	36.485.916	100,0	7,1

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

E.5.2. TAULA SORTUTAKO BEZA ETA BATEZ BESTEKO KARGA TASA ERREGIMEN OROKORREAN
CUADRO E.5.2. IVA DEVENGADO Y TIPO MEDIO DE GRAVAMEN EN RÉGIMEN GENERAL

KONTZEPTUA	CONCEPTO	2003	2004	2005	2006	%		
						04/03	05/04	06/05
Tasa orrok.oinarri ezargarria	Base imponible tipos generales	26.550.228	30.105.446	32.984.820	35.271.048	13,4	9,6	6,9
Sortutako kuota	Cuota devengada	3.795.020	4.314.633	4.735.382	5.059.552	13,7	9,8	6,8
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	14,29	14,33	14,36	14,34	0,3	0,2	-0,1
Baliok.errek.oinar.ezargarria	Base imponible recargo equival.	630.198	680.387	688.767	694.689	8,0	1,2	0,9
Sortutako kuota	Cuota devengada	11.608	12.154	12.045	12.174	4,7	-0,9	1,1
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	1,84	1,79	1,75	1,75	-3,0	-2,1	0,2
Batasun barruko eskur.oinar.ezargar.	Base imponible adq.intracomunit.	2.350.934	2.609.329	2.812.329	3.096.075	11,0	7,8	10,1
Sortutako kuota	Cuota devengada	352.396	391.086	424.070	465.394	11,0	8,4	9,7
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	14,99	14,99	15,08	15,03	0,0	0,6	-0,3

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

E.5.3. TAULA BEZaren KENKARIAK ERREGIMEN OROKORREAN
CUADRO E. 5.3. IVA TOTAL DEDUCCIONES DEL RÉGIMEN GENERAL

KENKARIAK	DEDUCCIONES	2003	2004	2005	2006	%		
						04/03	05/04	06/05
Barne eragiketak	Operaciones Interiores	2.991.300	3.423.500	3.807.559	4.016.000	14,4	11,2	5,5
Inportazioak	Importaciones	133.902	157.138	137.973	141.977	17,4	-12,2	2,9
Batasun barruko eskurapenak	Adq. intracomunitarias	351.539	390.459	422.859	464.317	11,1	8,3	9,8
N.A. eta A.ko erregimen berezia	Rég. Esp. Agr. Gan. y Pesca	1.984	2.216	2.025	2.173	11,7	-8,6	7,3
KENKARIAK, GUZTIRA	TOTAL DEDUCCIONES	3.478.725	3.973.313	4.370.417	4.624.467	14,2	10,0	5,8

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

E.5.4. TAULA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOARI EGOTZITAKO EMAITZA TRIBUTAZIO
ERREGIMENAREN ARABERA
CUADRO E.5.4. RESULTADO ATRIBUIDO AL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA SEGÚN EL RÉGIMEN DE TRIBUTACIÓN

TRIBUTAZIO ERREGIMENA	RÉGIMEN TRIBUTARIO	GIPUZKOARI EGOTZITAKO EMAITZA RESULTADO ATRIBUIDO A GIPUZKOA				% BARIAZIO TASA TASA VARIACIÓN %		
		2003	2004	2005	2006	04/03	05/04	06/05
Erregimen Orokorra	Régimen General	680.139	744.965	801.133	912.056	9,5	7,5	13,8
Enpresa handiak	Grandes empresas	345.724	333.438	358.290	367.212	-3,6	7,5	2,5
Esportatzaileak	Exportadores	-86.196	-56.299	-59.172	4.692	34,7	-5,1	107,9
Bestelakoak (*)	Resto (*)	420.612	467.826	502.015	540.152	11,2	7,3	7,6
Erregimen Erraztua	Régimen Simplificado	10.799	10.043	8.216	9.756	-7,0	-18,2	18,7
GUZTIRA	TOTAL	690.938	755.008	809.349	921.812	9,3	7,2	13,9

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

(*) 2006an bi erregimeni lotutako 314 zergadun, 2005eko 308, 2004ko 306 eta 2003ko 300 sartu ditu.

Incluye 314 contribuyentes que están sometidos a los dos regímenes en 2006, 308 en el ejercicio 2005, 306 en 2004 y 300 en 2003.

E.5.5. TAULA ESPORTATZAILEEI BEZan ITZULITAKOAREN BILAKAERA SORTZAPEN HILABETEEN ARABERA

CUADRO E.5.5. EVOLUCIÓN DE LAS DEVOLUCIONES DE IVA A EXPORTADORES POR MESES DE DEVENGO

HILABETEAk	MESES	2003		2004		2005		2006	
		Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución
Urtarrila	Enero	492	11.934	518	12.455	550	14.323	577	16.081
Otsaila	Febrero	491	15.569	519	12.693	551	20.147	575	18.544
Martxoa	Marzo	511	14.870	539	14.920	567	20.016	589	23.210
Apirila	Abril	501	17.132	531	15.647	558	20.759	581	19.881
Maiatza	Mayo	502	19.208	529	15.238	558	20.489	582	22.638
Ekaina	Junio	515	16.784	535	15.347	571	22.203	593	22.749
Uztaila	Julio	511	16.770	533	18.639	560	17.558	582	18.938
Abuztua	Agosto	511	8.679	533	9.429	560	10.776	584	13.064
Iraila	Setiembre	522	17.728	540	16.967	569	18.288	589	21.756
Urria	Octubre	513	20.599	532	19.112	569	20.049	583	25.709
Azaroa	Noviembre	512	15.232	530	16.891	566	18.816	584	23.283
Abendua	Diciembre	519	31.561	548	40.450	577	53.053	603	47.578
GUZTIRA	TOTAL	6.100	206.066	6.387	207.788	6.756	256.477	7.022	273.432

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

E.5.6. TAULA AITORPEN BATERATUA
CUADRO E.5.6. DECLARACION CONSOLIDADA

KONTZEPTUA	CONCEPTO	HILEKO AITORPENAK DECLARACIONES MENSUALES			HIRUHILEKO AITORPENAK DECLARACIONES TRIMESTRALES				GUZTIRA TOTAL
		Enpresa handiak Grandes empresas	Esporta- tzailleak Exporta- dores	Guztira Total	Erregimen Orokorra Régimen General	Erregimen Erraztua Régimen Simplif.	Erregimen Orokor+Erraztua Régimen Gener.+Simplif.	Guztira Total	
GINARRI EZARGARRIA (OE)	BASE IMPONIBLE								
Oinarri Ezargarría % 16	Base Imponible 16%	8.913.462	8.681.768	17.595.230	11.502.279		5.854	11.508.132	29.103.362
Oinarri Ezargarría % 7	Base Imponible 7 %	1.358.613	619.655	1.978.268	3.208.904		137	3.209.041	5.187.309
Oinarri Ezargarría % 4	Base Imponible 4 %	416.122	253.778	669.900	310.477			310.477	980.377
Baliok. Errek.O.Ezarg. % 4	B.Imp. Rec. Equiv. 4 %	60.616	25.413	86.029	71.445			71.445	157.475
Baliok. Errek.O.Ezarg. % 1	B.Imp. Rec. Equiv. 1 %	38.658	205.571	244.229	92.214			92.214	336.443
Baliok. Errek.O.Ezarg. % 0,5	B.Imp. Rec. Equiv. 0,5%	154.925	2.577	157.502	43.269			43.269	200.771
Batasun barruko eskurapenen OE	B. Imp. Adq. Intracomunitaria	842.599	1.572.997	2.415.596	680.439		40	680.479	3.096.075
SORTUTAKO KUOTA	CUOTA DEVENGADA								
Aztertu diren lau urteetan, gastuak sarrerak baino gutxiago hazi dira, %15,9 hain zuzen (2003ko 608 milioi eurotik 2006ko 704 milioi eurora pasa da). Gastuen bilakaerari erreparatuta, hazkunde tasak sarrerenak baino askoz txikiagoak dira:

- 2004an gastuak 87 mila euro gutxitu dira (%0,0)).
- 2005ean gastuak 5 milioi euro gehitu dira (+%0,8).
- 2006an gastuak gehiago gehitu dira: +92 milioi euro (+%15,0).

2006an gastuak sarrera propio ez-finantzarioen aldean izan duten handiagoko hazkunde hori saldoan islatzen da argi eta garbi, aurtengo superabita aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa delako: 34 milioi euro 2006an eta 78 milioi euro 2005ean.

Bere bi osagaien portaera dela-eta, bien arteko saldoak (superabit/defizitak) izugarritzko igoera metatua du epealdian:

- 2004an 15 milioi euro handiagoa da eta defizit superabita bihurtzen da: -106.000 eurotatik +15 milioi eurotara pasa da.
- Hurrengo urtean saldoa 63 milioi handiagoa da (+%422,6).
- 2006an, aldiz, 45 milioi euro jaitsi da saldoa: -%57,2.

Por su parte, los **gastos propios no financieros** han alcanzado los 704.354 miles de euros en el último ejercicio, el 3,5% del PIB del territorio.

En los cuatro años recogidos del periodo, los gastos registran un menor crecimiento que los ingresos, con una tasa del 15,9% (desde 608 millones de euros en 2003 hasta 704 millones en 2006). La evolución de los gastos muestra unas tasas muy inferiores a las de los ingresos:


- En 2004 descenden en 87 mil euros (0,0%).
- En 2005 aumentan en 5 millones de euros (+0,8%).
- En 2006 crece más: en 92 millones de euros (+15,0%).

Este incremento superior del gasto en 2006 frente a los ingresos propios no financieros se refleja claramente en el saldo ya que el superávit de este ejercicio es inferior al del año anterior: 34 millones de euros frente a los 78 millones de 2005.

Dado el comportamiento de sus dos componentes, el saldo entre ambos (superávit/déficit) presenta un aumento acumulado en el periodo muy elevado:

- En 2004 aumenta en 15 millones de euros y de un déficit de -106.000 euros pasa a obtener un superávit de 15 millones.
- Al año siguiente el saldo aumenta en 63 millones: +422,6%.
- En 2006, en cambio, el saldo descende en 45 millones: -57,2%.

GRÁFICO 8.3. GRAFIKOA
Sarrera propio ez-finantzarioen erabileraren bilakaera
Evolución del destino de los ingresos propios no financieros



Bilakaera hori 8.3. grafikoan jasotzen da argi eta garbi. Bertan ikus daiteke nola erabili edo banatu diren sarrera propio ez-finantzarioak hiru elementuen artean. Hona hemen zeintzuk diren:

- Zorraren interes pasiboek aurre egiteko erabilitako gastu propio ez-finantzarioak.
- Gainerako gastuak, kudeaketa propioko gastuak deiturikoen parte direnak.
- Aldea edo saldoa, ekitaldiko superabit/defizitari dagokiona.

Aztertutako lau urteetan hauxe ikusten da:

- Kudeaketa propioko gastuak %17,5 gehitu dira epealdian. Aurreko ekitaldietan igoerak moteldu egiten dira: 2003an sarrera propioen %97,7 izate-tik %87,5 izatera pasatzen dira 2005ean, eta azken ekitaldian %94,5 dira.
- Interesen gastuak %52,4 jaisten dira, 2003. urtean sarreraren %2,3 izate-tik %0,9 izatera pasatu direla-ko 2006an.
- Superabitak, 2003an jaitsi eta gero, gorantz egin du hurrengo bi ekitaldietan: 2004an %2,4 eta 2005ean %11,3. Azken ekitaldian, berriz, motel-tzen da sarrera propioen %4,5 izateraino.

Magnitude horiek beste modu batera ere aztertu dai-tezke, hau da, ekitaldi bakoitzean Gipuzkoak izan duen BPGrekin erlazionatuz, eta haien bilakaera lurraldeko ekonomiaren portaerarekin alderatuz. Txosten honetan, BPGri buruzko zifrak aurreikuspen bat dira 2005eko eki-taldiari dagokionez eta aurrerapen bat 2006rako.

BPGren portzentajeari erreparatuta, honako hau antzematen da epealdian:

- Sarrera ez-finantzarioak oso gutxi aldatzen dira, eta BPGren %3,7 da, 2004ko %3,6 izan ezik.
- Kudeaketa propioko gastu ez-finantzarioak behe-ra egiten du: 2003ko %3,6tik 2005eko %3,3ra pasa da. Azken ekitaldian %3,5eraino hazten da.
- Interes pasiboek ere behera egiten dute: 2003ko %0,09etik azken ekitaldiko %0,03ra.
- Superabitak, horren ondorioz, goranzko joera du: lehen urtean -%0,001ekoa izate-tik %0,4koa izate-ra pasatzen da 2005an. 2006an, ordea, moteltdu egin da %0,2raino.

Kontuan eduki behar den beste magnitude bat “**superabit/defizit primarioa**” da, alegia, sarrera propio

Esta evolución aparece claramente recogida en el gráfico 8.3., en el que se muestra el destino o reparto de los ingresos propios no financieros entre los tres elemen-tos:

- La parte de los gastos propios no financieros des-tinada a hacer frente a los intereses pasivos de la deuda.
- El resto de los gastos que forman los denominados gastos de gestión propia.
- La diferencia o saldo que corresponde al superá-vit/déficit del ejercicio.

En los cuatro años recogidos se produce:

- Un incremento de los gastos de gestión propia (17,5%), que tiende a desacelerarse en los tres pri-meros ejercicios del periodo: de representar el 97,7% de los ingresos propios en 2003, se situa en el 87,5% en 2005 para volver a crecer en el último año hasta suponer el 94,5%.
- Un descenso del gasto en intereses del 52,4%: del 2,3% de los ingresos en 2003 al 0,9% en 2006.
- El superávit, tras el déficit de 2003, ha repuntado en los dos ejercicios siguientes: 2,4% de los ingre-sos en 2004 y el 11,3% en 2005. En el último ejer-cicio, en cambio, se modera hasta ser el 4,5% de los ingresos propios.

Otra forma de analizar estas magnitudes es relacio-nándolas con el PIB guipuzcoano para cada ejercicio, comparando así su evolución con respecto al comporta-miento de la economía del territorio. En este informe, las cifras relativas al PIB corresponden a una previsión para el 2005 y a un avance para el 2006.

En términos de **porcentaje del PIB** se aprecia que a lo largo del periodo:

- Los ingresos no financieros apenas varían en el periodo y representan el 3,7% del PIB, 3,6% en 2004 únicamente.
- El gasto no financiero de gestión propia descien-de: del 3,6% de 2003 al 3,3% en 2005. En el últi-mo ejercicio aumenta hasta el 3,5%.
- Los intereses pasivos también descienden desde el 0,09% de 2003 al 0,03% del último ejercicio.
- El superávit, en consecuencia, ha mostrado una tendencia ascendente: del -0,001% en el primer año aumenta hasta el 0,4% en 2005. En 2006, sin embargo, se modera hasta el 0,2%.

Otra magnitud que hay que tener en cuenta es el “**superávit/déficit primario**”: la diferencia de los ingre-

ez-finantzarioen eta kudeaketa propioko gastuen arteko diferentzia. Hau da, aurreko superabit/defizit bera da, baina interes pasiboek aurre egiteko gastuak kontuan hartu gabe. Horren ondorioz, ekitaldi guztietan bere zenbatekoa aurreko saldoa baino handiagoa da.

Kopurua handiagoa izatean, 2003an defizita eman beharrean emaitza positiboa dauka (13.991 mila euro), eta horri esker ekitaldi honetan superabit primarioa ageri da oraindik. Hurrengo bi ekitaldietan egoera horrek hobera egiten du eta moteltzen da azken urtean.

Epealdi osoa hartuta, baina, hazkundera lehen aipatu dugun superabit/defizitarena baino txikiagoa izan da, interes pasiboek gero eta eragin gutxiago dutenez gero. Guztiarekin ere, ondoko kontzeptuak hartuta, hobekuntza nabari da:

- Sarrera propio ez-finantzarioak: 2003. urtean %2,3 izatetik %12,5 izatera pasatu da 2005ean, eta 2006an %5,5era iritsi da.
- BPGa: lau dezima irabazi ditu, 2003an %0,1 izatetik %0,5 izatera pasa baita 2005ean eta behera egiten du %0,2raino azken ekitaldian.

8.4. eta 8.5. grafikoetan bi superabit/defizit mota horien eta Gipuzkoako BPGren arteko erlazioa jaso dugu 2003-2006 epealdiari dagokionez.

8.4. grafikoan ikus daitekeenez, 2003ko superabit/defizitak BPGren %0,0ko tasa lortzen du, berez defizita gertatu zen. Hurrengo ekitaldian hobetzen da: 2004. urtean %0,1 eta 2005ean %0,4 izatera iristen da. Azken ekitaldian BPGren %0,2 izateraino jaisten da

esos propios no financieros y los gastos de gestión propia. Es decir, es igual al superávit/déficit anterior sin contar los gastos destinados a los intereses pasivos. Por ello, presenta en todos los ejercicios cuantía superior al saldo anterior.

Al ser una cuantía superior, en lugar de presentar un déficit, en 2003 se mantiene positivo (13.991 miles de euros) por lo que en este ejercicio sigue habiendo un superávit primario. Situación que mejora en los dos ejercicios siguientes y se modera en el último.

En el periodo, no obstante, ha aumentado en menor proporción que el superávit/déficit antes comentado debido a que la incidencia de los intereses pasivos es cada vez menor. Aún así, se aprecia su mejoría con respecto a:

- Los ingresos propios no financieros: han pasando de representar el 2,3% en 2003 al 12,5% en 2005, bajando hasta el 5,5% en 2006.
- El PIB: aumenta cuatro décimas del 0,1% en 2003 al 0,5% de 2005, y desciende hasta el 0,2% en el último ejercicio.

La relación entre los dos tipos de superávits/déficits y el PIB guipuzcoano viene recogida en los gráficos 8.4 y 8.5. para el periodo 2003-2006.

El superávit/déficit (gráfico 8.4.) en 2003, que fue deficitario, obtuvo una tasa del 0,0% del PIB. Posteriormente mejora: en 2004 es el 0,1% y en 2005 el 0,4%. En el último ejercicio desciende hasta suponer el 0,2% con respecto al PIB.

GRÁFICO 8.4. GRAFIKOA
Sarrera eta gastu propio ez-finantzarioak eta superabit/defizita BPGrekiko erlazioan
Ingresos y gastos propios no financieros y superávit/déficit en relación al PIB





GRÁFICO 8.5. GRAFIKOA

Sarrera propio ez-finantzarioak, kudeaketa propioko gastuak eta superabit/defizit primarioa BPGrekiko erlazioan
Ingresos propios no financieros, gastos de gestión propia y superávit/déficit primario en relación al PIB



Bi grafikoetan argi ikus daitekeenez, gastu propio ez-finantzarioak (bai gastu osoak eta bai kudeaketa propiokoak) punturik gorenean daude 2003an. Aldiz, 2004an gastu horiek beherakada bat dute, eta horrela jarraitzen dute hurrengo ekitaldian ere, epealdiko mailarik baxuena lortuz. 2006an, ordea, igo egiten dira berriro eta 2004koa gainditzen dute.

Badago hirugarren saldo bat, “**kutxako superabit/defizit ez-finantzarioa**” deiturikoa, ondoko hauen arteko aldea jasotzen duena:

- Sarreraren 1etik 7ra arteko kapituluetan egindako kobrantzak.
- Gastuen 1etik 7ra arteko kapituluetan egindako ordainketak.

Hau da, saldoa kalkulatzeko da diruzaintzako fluxuen ikuspegitik. Horretarako, ekitaldian egindako kobrantzak eta ordainketak baino ez dira kontuan hartzen, eskubidea edota obligazioa noiz sortu den alde batera utziz.

2006an kutxako superabit/defizit ez-finantzarioa negatiboa izan da, hots, urte horretan 23,6 milioi euroko defizita izan da. Zenbateko horrek bi kopuru hartzen ditu: 33,5 milioi euroko superabita batetik, eta eragiketa ez-finantzarioen desplazamendu garbia bestetik, hau da, -57,1 milioi euro. Kontzeptu honek unean uneko finantza-ahalmen edo beharra jartzen du agerian.

Como se puede apreciar claramente en ambos gráficos, en 2003 los gastos propios no financieros (tanto los totales como los de gestión propia) se sitúan en su punto máximo. En 2004, sin embargo, se aprecia un descenso en estos gastos que continúa en el ejercicio siguiente situándose en el nivel más bajo del periodo. En el último ejercicio, en cambio, vuelven a aumentar por encima del nivel de 2004.

Existe un tercer saldo denominado “**superávit/déficit de caja no financiero**” que recoge la diferencia entre:

- Los cobros realizados correspondientes a los capítulos uno al siete de ingresos.
- Los pagos realizados relativos a los capítulos uno al siete del estado de gastos.

Es decir, se calcula el saldo desde el punto de vista de los flujos de tesorería. Para ello, se tienen en cuenta únicamente los cobros y pagos realizados durante el ejercicio, independientemente del momento en que se generó el derecho y/o la obligación.

En 2006 el superávit/déficit de caja no financiero es negativo, es decir, hay un déficit de caja no financiero de 23,6 millones de euros. Esta cuantía está formada por los 33,5 millones de superávit y por una cuantía negativa de 57,1 millones de euros del desplazamiento neto de operaciones no financieras. Este concepto pone de manifiesto la capacidad o necesidad de financiación coyuntural.


8.6. grafikoan “superabit/defizitaren” eta “kutzako superabit/defizit ez-finantzarioaren” bilakaera ikus daiteke 2003-2006 epealdiari dagokionez. Honako hau nabarmendu daiteke urte horietan:

- Desplazamendu garbiaren ekarpena positiboa da lehenengo hiru urtetan: kutxako superabit ez-finantzarioak ekitaldiko superabita gainditzen du. 2006an aldatzen da eta kutxako saldo ez-finantzarioaren defizita sorten da.
- 2003an, kutxako superabit ez-finantzarioa desplazamendu garbiaren ekarpenagatik bakarrik gertatu da, ekitaldiko saldoa negatiboa delako (defizita dago).
- 2004an, desplazamendu garbiaren ekarpena ekitaldiko superabitarena baino askoz handiagoa da.
- 2005ean alderantziz gertatu da: desplazamendu garbiak superabita baino askoz txikiagoa du ekarpena.
- 2006an aurreko tendentzia areagotzen da eta desplazamendu garbien ekarpena negatibo bihurtzen da.

En el gráfico 8.6. se recoge la evolución tanto del “superávit/déficit” como del “superávit/déficit de caja no financiero” referido al periodo 2003-2006. En estos años cabe destacar:

- La aportación del desplazamiento neto es positiva en los tres primeros años: el superávit de caja no financiero es superior al superávit del ejercicio. En 2006 cambia y se produce un déficit en el saldo de caja no financiero.
- En 2003 el superávit de caja no financiero se debe exclusivamente a la aportación del desplazamiento neto, dado que el saldo del ejercicio es negativo (hay déficit).
- En 2004, la aportación del desplazamiento neto es muy superior a la del superávit del ejercicio.
- En 2005, es a la inversa: la aportación del desplazamiento neto es muy inferior a la del superávit.
- En 2006, se acentúa la tendencia del año anterior y la aportación del desplazamiento se convierte en negativa.

GRÁFICO 8.6. GRAFIKOA
Kutzako saldo ez-finantzarioaren bilakaera
Evolución del saldo de caja no financiero



8.1.2. EMAITZA FINANTZARIOA ETA ZORRA

Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna finantzario desberdinak erabiltzen ditu eskura dauzkan diru baliabideak denboran zehar ahal den ondoen aplikatzeko:

8.1.2. RESULTADO FINANCIERO Y DEUDA

La Diputación Foral de Gipuzkoa utiliza diferentes instrumentos financieros para optimizar la asignación intertemporal de recursos:

- Kutxako defizit ez-finantzarioa dagoen ekitaldian pasibo finantzarioak gehitu egiten dira edota aktibo finantzarioak murrizten.
- Kutxako superabit ez-finantzarioa sortzen denean, pasibo finantzarioak murrizten dira edota aktibo finantzarioak gehitzen.
- Normalean mugimendu finantzario desberdinen arteko konbinazioa gertatzen da:
- Defizitaren kasuan, Foru Aldundiaren Egoera Finantzario Garbia murriztea dakarte (aktibo finantzarioak ken pasibo finantzarioak).
- Superabitaren kasuan, berriz, Egoera Finantzario Garbia gehitzen dute.

2006. urtean GFaren Egoera Finantzario Garbia 23,6 milioi eurotan okerragotu da, hain zuzen ere, kutxako defizit ez-finantzarioak ekitaldian lortu duen zenbatekoan. Eraitza hori hainbat mugimendu finantziarioren ondorioz gertatu da, eta batik bat ondoko hauek direla eta:

- Aktibo finantzarioan: saldo erabilgarria batez ere, eta partaidetzak eta emandako maileguak jaisteagatik. Aurrekontuz kanpoko beste aktibo batzuk baino ez dira igo. Batera hartuta, beherakada 70 milioi eurokoa da.
- Pasibo finantzarioan: enprestitoak eta jasotako maileguak gutxitzeagatik, epe laburreko foru

- En el ejercicio en el que se produce un déficit de caja no financiero aumentan los pasivos financieros y/o disminuyen los activos financieros.
- Cuando se genera un superávit de caja no financiero disminuyen los pasivos financieros y/o aumentan los activos financieros.
- Más frecuentemente se produce una combinación de diferentes movimientos financieros que:
- En el caso del déficit dan lugar a una disminución de la Posición Financiera Neta de la Diputación Foral (activos financieros menos pasivos financieros).
- En el caso del superávit, a un aumento de su Posición Financiera Neta.

En 2006 se produce un empeoramiento de la Posición Financiera Neta de la DFG por importe de 23,6 millones de euros, es decir, por la cuantía correspondiente al déficit de caja no financiero alcanzado en el ejercicio. Este resultado final se obtiene a partir de diversos movimientos financieros, cuyos principales componentes han sido:

- En el activo financiero: descenso del disponible. Aunque los otros dos elementos aumentan, en conjunto descienden en 70 millones de euros.
- En el pasivo financiero: descenso de los empréstitos y préstamos recibidos, concretamente de los

GRÁFICO 8.7. GRAFIKOA
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoera Finantzario Garbiaren bilakaera
Evolución de la Posición Financiera Neta de la Diputación Foral de Gipuzkoa





GRÁFICO 8.8. GRAFIKOA
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoera Finantzario Garbiaren bi osagaien bilakaera
 Evolución de los dos componentes de la Posición Financiera Neta de la Diputación Foral de Gipuzkoa



bonoak eta obligazioak (-90 milioi) hain zuzen. Guztira, 46,4 milioi euro jaitsi dira, aurreko ekitaldian baino askoz ere gehiago, 8,5 milioi jaitsi baitziren orduan.

bonos y obligaciones forales a corto plazo (-90 millones). En conjunto descienden en 46,4 millones de euros, descenso superior a los 8,5 millones del ejercicio anterior.

Egoera finantzario garbiak 2003-2006 epealdian izan duen bilakaera aztertzen badugu, honako hau ikus daiteke:

Si analizamos la evolución de la posición financiera neta en el periodo 2003-2006, podemos observar:

- Pasibo finantzarioek behera egin dute, batez ere “Jesapenak eta jasotako maileguak ” apartatuan. Jaitsiera hori 2004an (-98 milioi euro) eta 2006an (-46 milioi euro) areagotu da.
- Aldiz, aktibo finantzarioek gora eta behera egin dute epealdian. 2003an (+22 milioi) eta 2005ean (+94 milioi) gora egin dute eta 2004an (-42 milioi) zein 2006an (-70 milioi) behera.
- Bien arteko eragina: egoera finantzario garbia hobetuz joan da urtetik urtera, eta 2005ean nabarmen handitu da. Azken ekitaldian, ordea, 23,6 milioi euroko beherakada izan du.

- Una disminución de los pasivos financieros, sobre todo el apartado de “Empréstitos y Préstamos recibidos”. Este descenso se ha acentuado en 2004 (-98 millones de euros) y 2006 (-46 millones).
- Los activos financieros muestran altibajos con aumentos en 2003 (+22 millones) y 2005 (+94 millones), y descensos en 2004 (-42 millones) y en 2006 (-70 millones).
- El efecto conjunto: la posición financiera neta ha ido mejorando cada ejercicio, aumentando de forma notable en 2005. Sin embargo, ha descendido en 23,6 millones en el último ejercicio.

Egoera finantzario garbiaren analisisa egitean interesgarria izaten da osagai bakoitza bere urteko bariazioaren arabera aztertzea, hau da, ekitaldiaren hasieratik amaiera bitartean zein diferentzia dagoen ikustea. Era horretan aztertu daiteke zein saldo sortu diren ekitaldi bakoitzean eta nola sortu diren. Kontuan eduki behar da, baita ere, urte bakoitzeko egoera finantzario garbiaren bariazioa ekitaldikotik kuxakoa superabit/defizit ez-finantzarioekin bat datorrela.

Dentro del análisis de la posición financiera neta resulta interesante estudiar cada componente en base a su variación anual, es decir, la diferencia entre su situación al inicio del ejercicio y al final del mismo. Así se analiza qué saldos y cómo se han generado en cada ejercicio. También ha de tenerse en cuenta que la variación de la posición financiera neta de cada año coincide con el superávit/déficit de caja no financiero del ejercicio.

Analisi horrek erakusten du epealdiko egoera finantzario garbia positibo mantentzen dela eta gora egiteko joera duela azken ekitaldian izan ezik. 2005eko gorakada handiaren (+103 milioi) ondorioz ekitaldiko zenbatekorik handiena lortu du (267 milioi). Azken urtean, berriz, 23,6 milioi jaisten den arren egoera finantzario garbiak positiboa eta handia jarraitzen du izaten, 2005 baino lehenagoko urteetan lortutakoa baino handiagoa.

Urtez urteko bariazioek portaera desberdina dute aztertu den epealdian (8.9 grafikoa):




- Pasibo finantzarioek, gehienbat “Jesapenak eta jasotako maileguak”, saldo negatiboarekin jarrai-

Con este análisis se aprecia que la posición financiera neta del periodo se mantiene positiva y con una tendencia de crecimiento hasta el último ejercicio en que desciende. Tras el elevado aumento de 2005 (+103 millones) alcanza la mayor cuantía del periodo (267 millones de euros). En el último ejercicio, aunque desciende en 23,6 millones, la posición financiera neta sigue siendo positiva y superior a la de los años precedentes a 2005.

Las variaciones anuales producidas en el periodo (gráfico 8.9.) presentan distinto comportamiento:

- Los pasivos financieros, en su mayoría “Empréstitos y Préstamos recibidos”: continua con su

GRÁFICO 8.9. GRAFIKOA
GFaren Egoera Finantzario Garbiaren eta bere osagaien bariazioaren bilakaera
Evolución de la variación de la Posición Financiera Neta de la DFG y de sus componentes



tzen dute eta 2006 beherakada nabaria gertatu da berriro.

- Aktibo finantzarioak 2004an jaitsi eta gero, epeal-diko mailarik altuena lortzen dute 2005ean eta 2006an berriro behera egin dute.

- Horren ondorioz, egoera finantzario garbiaren gorazko joera dezelerazio handia jasan egin du: 2003an 27 milioi gehitzen da, 2004an 56 milioi, eta 2005ean 103 milioi, azken ekitaldian, berriz, izugarritzko jaitsiera izan du: -23,6 milioi euroraino.

8.1.3. SARRERA ETA GASTU PROPIO EZ-FINAN-TZARIOEN EGITURA

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren egitura aztertzean bi eragiketa mota bereizten ditugu bai sarreretan eta bai gastuetan:

- Eragiketa arruntak.
- Kapital eragiketak.

Era berean, sarrera arrunt propioen barruan honako hauek bereizten dira:

- Jasotako transferentzia arruntak (4. kapitulua).
- Ondare sarrerak (5. kapitulua).
- Zerga sarrerak (1etik 3ra arteko kapituluak), eta hauen barruan:
- Zerga itundu propioak, hau da, zerga itunduak ken erakundeekiko konpromisoen zenbatekoa.
- Gainerako zerga sarrerak.

Gastu arrunt propioen artean ondoko hauek ditugu:

- Finantza gastuak (3. kapitulua).
- Kudeaketa gastuak, honela osatuak:
- Langileria gastuak (1. kapitulua).
- Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa (2. kapitulua).
- Transferentzia arrunt propioak, hau da, transferentzia arruntak (4. kapitulua) ken erakundeekiko konpromisoen zenbatekoa.

Epealdiko **sarrera arrunt propioak** honela banatu dira:

- Portzentajerik handiena zerga itundu propioek metatu dute: %91,0 eta %91,7 bitartean.
- Transferentzia arruntak %3,8 eta %5,9 inguru dira.

saldo negativo y en 2006 vuelve a producirse un importante descenso.

- Los activos financieros: tras el descenso de 2004 alcanza el máximo del periodo en 2005 y vuelven a disminuir en 2006.

- En consecuencia, la posición financiera neta presenta una desaceleración significativa de su tendencia ascendente: en 2003 crece en 27 millones; en 2004 lo hace en 56 millones; en 2005 en 103 millones, pero en 2006 desciende de forma abrupta hasta -23,6 millones de euros.

8.1.3. ESTRUCTURA DE LOS INGRESOS Y GASTOS PROPIOS NO FINANCIEROS

Al analizar la estructura del presupuesto propio no financiero distinguimos, tanto para ingresos como para gastos, entre:

- Las operaciones corrientes.
- Las operaciones de capital.

Dentro de los ingresos corrientes propios diferenciamos entre:

- Transferencias corrientes recibidas (capítulo 4).
- Ingresos patrimoniales (capítulo 5).
- Ingresos tributarios (capítulos 1 a 3) y dentro de estos:
- Los tributos concertados propios: los tributos concertados menos el importe de los compromisos institucionales.
- El resto de ingresos tributarios.



Los gastos corrientes propios se dividen entre:

- Los gastos financieros (capítulo 3).
- Los gastos de gestión, formados por:
- Gastos de personal (capítulo 1).
- Compra de bienes corrientes y servicios (capítulo 2).
- Transferencias corrientes propias: transferencias corrientes (capítulo 4) menos la cuantía de compromisos institucionales.

Los **ingresos corrientes propios** del periodo se distribuyen de la siguiente forma:

- Los tributos concertados propios son el concepto con mayor concentración: entre el 91,0% y el 91,7%.
- Las transferencias corrientes suponen entre el 3,8% y el 5,9%.

GRÁFICO 8.10. GRAFIKOA
Sarrera eta gastu arrunt propioen egitura
Estructura de los ingresos y gastos corrientes propios



- Itundu gabeko beste zergak sarreren %2,2 eta %3,3 bitartean dabilta.
- Ondare sarrerak dira garrantzi gutxien dutenak: %0,8 eta %1,3 bitartean.

- Los otros tributos no concertados varían entre el 2,2% y el 3,3% de los ingresos.
- Los ingresos patrimoniales son el concepto con menor representatividad: entre el 0,8% y el 1,3%.

2003 eta 2006 bitartean sarrera arrunt propioak %24,6 gehitu dira. Hazkunderik handiena 2005ean urtean (+%10,7) ageri da, bere atzean 2006ko hezkuntza dator %8,3ko tasarekin. 2006ko sarrera horien osagaiek joera desberdina daukate guztiarekin konparatuta:

Entre 2003 y 2006 los ingresos corrientes propios han crecido un 24,6%. El mayor incremento corresponde a 2005 (+10,7%) siguiéndole de cerca 2006 con +8,3%. Los conceptos que forman estos ingresos de 2006 muestran distinto comportamiento que el total:

- Zerga itundu propioak gehiago hazi dira (%9,0).
- Transferentzia arruntek jaitsi egin dira (-%30,5).
- Itundu gabeko beste zergek eta ondare sarrerek hazkunderik handiena lortu dute: %64,0 eta %57,2 hurrenez hurren.

- Los tributos concertados propios crecen más (9,0%).
- Las transferencias corrientes descienden (-30,5%).
- Los otros tributos no concertados (+64,0%) y los ingresos patrimoniales (+57,2%) son los que más crecen.

Gastu arrunt propioetan, ordea, kontzeptu bakoitzaren partaidetza banatuago dago:

En los **gastos corrientes propios**, en cambio, la participación de cada concepto se encuentra más repartida:

- Gastu finantzarioek garrantzia galtzen dute epeal-dian, eta 2003. urtean gastuen %4,6 izatetik %1,8 izatera pasatu dira 2006an.

- Los gastos financieros disminuyen su importancia en el periodo: del 4,6% de los gastos en 2003 al 1,8% en 2006.

- Transferentzia arrunt propioak epealdiko gastu arrunt propioen erdia baino gehiago dira: %51,9 eta %53,8 bitartean.
- Langileria gastuek %25,6 eta %23,5 bitartean metatzen dute.
- Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak 2003ko %19,0tik 2006ko %21,5era bitartean mugitzen dira.

Aztertutako lau urteetan gastuek %22,5eko igoera metatua dute, eta goranzko joera:


- 2004. urtean %1,7 baino ez dira hazi gastu finantzarioak jaisteagatik (-%36,2). Gehien igo den kapituluak langileria gastuena da: +%6,5.
- 2005ean hazkunde bizia dute (%10,6), eta bi kapituluak nabarmentzen dira: hala ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak nola transferentzia arrunt propioak %14,1 hazi baitira biak.
- 2006an hazkunde motelagoa dute (%8,9), eta ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketen kapituluak %17,8 hazi da, tasarik handiena.

- Las transferencias corrientes propias suponen más de la mitad de los gastos corrientes propios en el periodo: entre el 51,9% y el 53,8%.
- Los gastos de personal concentran entre el 25,6% y el 23,5%.
- Las compras de bienes corrientes y de servicios varían entre el 19,0% de 2003 y el 21,5% del último ejercicio.

Los gastos en los cuatro ejercicios del periodo recogido muestran un aumento acumulado del 22,5% con una tendencia ascendente:

- En 2004 crecen sólo un 1,7% debido al fuerte descenso de los gastos financieros (-36,2%). El capítulo que más aumenta es el gasto de personal (+6,5%).
- En 2005 crece a buen ritmo: 10,6%. Sobresalen tanto las compras de bienes corrientes y servicios como las transferencias corrientes propias ya que ambas crecen un 14,1%.
- En 2006 aumenta algo menos (+8,9%). La compra de bienes y servicios se mantiene como el capítulo de mayor incremento (+17,8%).

GRÁFICO 8.11. GRAFIKOA
Sarrera eta gastu arrunt propioen eta aurrezkiaren bilakaera
Evolución de los ingresos y gastos corrientes propios y del ahorro



Sarrera arrunt propioei gastuak kentzen bazaizkie ekitaldiko **aurrezkia** lortzen da. 8.11 grafikoan ikus daitekeenez, aurrezkia egonkor mantendu da epealdian:

- 2003. urtean bere minimora iristen da: 247 milioi euro.
- Kopururik handiena 2006. urtean lortu du: 314 milioi euro.

Bestalde, aurrezkia sarrera arrunt propioekin erlazioz gero, agerian jartzen da lau urte hauetan proportzioa egonkor mantentzen dela. Zehazki esanda, 2003an %44,6 izatetik %45,5 izateraino hobetzen da azken ekitaldian.

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren egituraren beste zatia, **kapital eragiketak** alegia, sarrera eta gastuen 6. eta 7. kapituluek osatzen dute. Analisia egiterakoan, honela taldekatu ditugu:

- Inbertsio garbia, hau da, egindako inbertsioen eta inbertsioak besterentzearen arteko diferentzia.
- Ordaindutako kapital transferentziak.
- Jasotako kapital transferentziak.

Inbertsio garbia %3,6 igo da epealdian, eta 2003an 243 milioi eurokoa izatetik 251 milioi eurokoa izatera pasatu da 2006an. Hala ere, epealdiko urteetan beherakadak gertatu dira: 2004an (-%0,8) zein 2005ean (-%15,7). Baina 2006ko igoera (+23,9%) nahikoa izan da aurreko jaitziera gainditzeko.

Ordaindutako kapital transferentziak, beren aldetik, %34,0 igo dira epealdian, eta jaitziera bakarra 2004an dute (%6,1ekoa). Dena den, zenbatekoen bariazioak ez dira oso handiak: 57 milioi eurotik 2003an 76 milioi eurora igaro da azken ekitaldian.

Aldundiko inbertsioaren kanpoko finantzazioa, hau da, **jasotako kapital transferentziak**, %10,0 jaitzi dira: 52 milioi eurotik 2003an 47 milioi eurora pasatu da 2006an. Igoera bakarra 2005ean gertatu da (+%13,6). Sarrera propio ez-finantzarioen aurrean duen pisua 2003ko %8,6tik 2006ko %6,4ra bitartean dabil.

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren emaitza kalkulatzeko, hau da, **ekitaldiko superabit edo defizita** eza-gutzeko, bi zatiak elkartu behar ditugu (aurrekontu arrunta eta kapital eragiketak) eta sarrerak eta gastuak modu honetara bereizi:

Si a los ingresos corrientes propios se le restan los gastos se obtiene el **ahorro** del ejercicio. Como se puede apreciar en el gráfico 8.11., el ahorro se mantiene estable a lo largo del periodo:

- En 2003 alcanza su mínimo con 247 millones de euros.
- En 2006 obtiene el máximo con 314 millones.

Por otro lado, si relacionamos el ahorro con los ingresos corrientes propios, en estos cuatro años también mantiene una proporción estable. Concretamente de suponer el 44,6% en 2003 ha mejorado hasta el 45,5% obtenido en el último ejercicio.

La otra parte de la estructura del presupuesto propio no financiero, **las operaciones de capital**, está compuesta por los capítulos 6 y 7 de ingresos y gastos. Para realizar el análisis, los agrupamos de la siguiente manera:

- La inversión neta: diferencia entre las inversiones realizadas y la enajenación de inversiones.
- Las transferencias de capital pagadas.
- Las transferencias de capital recibidas.


La **inversión neta** ha crecido a lo largo del periodo un 3,6%, y de 243 millones de euros en 2003 se ha situado en 251 millones en 2006. De todas formas, en los años recogidos se han producido descensos, tanto en 2004 (-0,8%) como en 2005 (-15,7%), que se han visto corregidos con el incremento de 2006 (+23,9%).

Por su parte, las **transferencias de capital pagadas** han aumentado un 34,0% en el periodo, con un único descenso del 6,1% en 2004. No obstante, las variaciones cuantitativas producidas no han sido muy significativas, ya que han pasado de 57 millones de euros en 2003 a 76 millones en el último ejercicio.

La financiación externa de la inversión foral, las **transferencias de capital recibidas**, han descendido en un 10,0%: de 52 millones de euros en 2003 a 47 millones en 2006. Sólo se ha producido un aumento: en 2005 (+13,6%). Su peso frente a los ingresos propios no financieros varía entre el 8,6% de 2003 y el 6,4% en 2006.

Para calcular el resultado del presupuesto propio no financiero, es decir, **el superávit o déficit del ejercicio**, hemos de agrupar ambas partes (el presupuesto corriente y las operaciones de capital) diferenciando los ingresos y los gastos de la siguiente manera:

GRÁFICO 8.12. GRAFIKOA
Aurrekontu propio ez- finantzarioaren emaitzaren bilakaera
 Evolución del resultado del presupuesto propio no financiero



- Aurrezkiari (aurrekontu arruntaren saldoari) jasotako transferentziak gehituz.
- Inbertsio garbiak eta ordaindutako kapital transferentziak batuz.

Bi magnitude horien arteko aldeak ekitaldiko superávit edo defizita ematen digu, 8.12 grafikoan ikus daitekeena.

Saldo honek, kapitulu honetako lehen apartatuan jada aztertu denak, erakusten du 2003ko defizita izan eta hurrengo ekitaldietan indarberritu egiten dela eta azken ekitaldian moderatu dela. Gastuak jaitsi eta sarrerak handitu izana dugu horren arrazoia. Lau ekitaldi hauetan:

- Aurrezkia %27,1 hazi da, baina igoera hori murriztu da jasotako kapital transferentziak %10,0 jaitsi baitira. Batera hartuta, %20,6 gehitu dira.
- Inbertsioak eta ordaindutako kapital transferentziak gutxiago hazi dira: %9,4.

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren egitura aztertzerakoan interesgarria gertatzen da 8.13 grafikoan ageri diren ondorengo ratioak nabarmentzea:

- Agregamos al ahorro (saldo del presupuesto corriente) las transferencias de capital recibidas.
- Sumamos las inversiones netas y las transferencias de capital pagadas.

La diferencia entre ambas magnitudes nos da como resultado el superávit o déficit del ejercicio, recogido en el gráfico 8.12.

Este saldo, ya analizado en el primer apartado del capítulo, muestra que tras el déficit de 2003 mejora la situación con superávit en los dos ejercicios siguientes y se modera en el último. La causa ha sido el descenso de los gastos frente al aumento de los ingresos. En estos cuatro ejercicios:

- El ahorro ha crecido un 27,1%, tasa corregida por el descenso del 10,0% de las transferencias de capital. En conjunto han crecido un 20,6%.
- Las inversiones y las transferencias de capital pagadas han aumentado menos: 9,4%.

A la hora de analizar la **estructura del presupuesto propio no financiero** resulta interesante resaltar los siguientes ratios recogidos en el gráfico 8.13.:

- Aurrezkia sarrera arrunt propioekin erlazionatzen duena.
- Inbertsio garbia kudeaketa propioko gastu arruntekin erlazionatzen duena.
- Aldundiaren baliabide propioekin finantzatutako inbertsioak jasotzen dituen. Hau da, bi hauek erlazionatzen dituena:
- Kanpoko finantzaziorik gabeko inbertsioak (inbertsio garbiak – jasotako kapital transferentziak).
- Kudeaketa propioko gastu arruntak.

Aurrezkiak sarrera arrunt propioetan duen partaidetza aztertzean datu hauek geratzen dira agerian epealdian zehar:

- Ez dago gorabehera handirik, eta bariazioa puntu bat eta bi dezima portzentualekoa da: %45,8 2004 eta 2005ean eta %44,6 2003an.
- Joera egonkorra da: 2004ko igoeratik aurrera mantendu da eta 2006an hiru dezima portzentual besterik ez du galdu.

Inbertsio garbiak eta kudeaketa propioko gastu arruntak erlazionatzen dituen **ratioak** baditu aurrekoarekiko aldeak:


- El que relaciona el ahorro con los ingresos corrientes propios.
- El que relaciona la inversión neta con los gastos corrientes de gestión propia.
- El que recoge la parte de las inversiones financiada con los recursos propios de la diputación. Es decir, la relación entre:
- Las inversiones sin financiación externa (inversiones netas – transferencias de capital recibidas).
- Los gastos corrientes de gestión propia.

Al analizar el **ahorro en términos de participación de ingresos corrientes propios**, ya comentado anteriormente, se aprecia que en el periodo presenta:

- Pocas fluctuaciones, con una amplitud de variación de un punto y dos décimas porcentuales: desde el 45,8% de 2004 y 2005 al 44,6% de 2003.
- Una tendencia estable: tras el aumento de 2004 se ha mantenido y sólo ha bajado tres décimas porcentuales en 2006.

El **ratio** que relaciona las **inversiones netas** con los **gastos corrientes de gestión propia** presenta diferencias con el anterior:

GRÁFICO 8.13. GRAFIKOA
Kudeaketa propioko gastuaren egituraren ratio nagusiak
Principales ratios de la estructura del gasto propio de gestión



- Tarteazabalduegitegida: 22,8 puntu portzentualekoa da, 2003ko %83,0etik 2005eko %60,2ra pasatzen delako.
- Gorabehera handiagok ditu: 2004an 3,5 puntu jaisten da eta 2005ean 19,3 puntu galtzen ditu. Azken ekitaldian, aldiz, 7,9 puntu igo da.
- 2006an pixka bat zuzentzen da beheranzko joera.

Azken **ratioak inbertsio propioa eta kudeaketa propioko gastu arrunta** erlazionatzen ditu. Aurreko inbertsio garbiari jasotako kapital transferentziak kentzean, kanpoko finantzazioaren bilakaera aldakorren eragina ezabatzea lortzen da. Kasu honetan, alabaina, barioak esanguratsuak dira oraindik:

- Tartearen zabalera txikixeagoa da: 20,3 puntu portzentual, 2003ko %65,1etik 2005eko %44,8ra.
- Gorabeherak antzekoak dira: 2004an 0,7 puntu jaisten da, 2005ean 19,6 puntu eta azken ekitaldian 10,6 puntu igo da.
- Epealdiak beheranzko joera du, 2006an pixka bat zuzenduta. Azken ekitaldia honetan urteko inbertsio garbien %55,4 baliabide propioekin finantzatu dira.

Beraz, azken bi ratioak konparatzen badira (inbertsio garbia eta baliabide propioekin finantzaturako inbertsioa kudeaketa propioko gastu arruntarekin erlazionatzen dituztenak), ondorio hauxe atera dezakegu: gastuaren egiturak aurreko ekitaldietako profil inbertsorea moderatzen du 2005eraino. 2006an, ordea, joera horri geldiarazi zaio inbertsioen igoerak. Hori dela medio, azken ekitaldiko superabita jaitzi da.

Laburbilduz, 2006. urtean sarrerak gastu arrunt propioak baino gutxiago hazi dira eta, horrek aurrezkiaren ratioa neurri txikiagoan handitzea ekarri du. Gainera, urte horretan inbertsioak gehitu direnez, aurreko ekitaldiko superabita oso beherakada esanguratsua izan du, eta 78 milioikoa izatetik 33,5 milioikoa izatera pasatu da.

8.1.4. KUDEAKETA GASTUAK

Kudeaketa propioko gastu ez-finantzarioak honako gastuok biltzen ditu:

- Langileria gastuak.
- Ondasun eta zerbitzuen erosketa arruntak.
- Transferentzia arruntak (erakundeekiko konpromisoak sartu gabe).

- Mayor amplitud de intervalo: 22,8 puntos porcentuales desde el 83,0% de 2003 al 60,2% del 2005.
- Mayor fluctuación: descende en 3,5 puntos en 2004 y en 19,3 puntos en 2005, y aumenta en 7,9 puntos en el último año.
- La tendencia descendente se corrige ligeramente en 2006.

En el último **ratio** se relaciona la **inversión propia** con el **gasto corriente de gestión propia**. Al restar a la inversión neta anterior las transferencias de capital recibidas, se consigue eliminar el efecto de la evolución errática de esta financiación externa. Aun así, las variaciones siguen siendo significativas:

- La amplitud del intervalo es algo inferior: 20,3 puntos porcentuales desde el 65,1% de 2003 al 44,8% de 2005.
- Las fluctuaciones son similares: descende en 0,7 puntos en 2004 y en 19,6 puntos en 2005 para luego aumentar en 10,6 puntos en el último ejercicio.
- Tendencia descendente en el periodo ligeramente corregida en 2006. En este último ejercicio son financiadas con recursos propios el 55,4% de las inversiones netas realizadas durante el año.

En consecuencia, si se comparan los dos últimos ratios (los que relacionan la inversión neta y la inversión financiada con recursos propios, con el gasto corriente de gestión propia) se desprende que la estructura del gasto hasta el ejercicio 2005 era de moderación en el perfil inversor que se ha visto frenada en 2006 con un aumento de las inversiones. Este comportamiento ha producido un descenso en el superávit del ejercicio.

En resumen, en 2006 el aumento de los ingresos ha sido inferior al de los gastos corrientes propios, lo que ha producido que el ratio del ahorro aumente en menor medida. Así mismo, en este año el aumento del nivel de las inversiones ha ocasionado que el superávit sea muy inferior al del ejercicio anterior: descende de 78 a 33,5 millones de euros.

8.1.4. GASTOS DE GESTIÓN

El gasto no financiero de gestión propia recoge los siguientes gastos:

- Los de personal.
- Compras corrientes de bienes y servicios.
- Transferencias corrientes (excluidos los compromisos institucionales).

- Inbertsio errealak.
- Kapital transferentziak.

Aurrekontuko sailkapen funtzionala kontuan hartuz aztertu daiteke gastu ez-finantzarioa:

- Zor publikoa.
- Zerbitzu orokorrak.
- Babes zibila.
- Gizarte babesa eta sustapena.
- Gizarte izaerako herri ondasunen sorrera.
- Izaera ekonomikoko herri ondasunen sorrera.
- Ekonomiaren erregulazio orokorra.
- Ekoizpen sektoreen erregulazio ekonomikoa.
- Sektore publikoaren transferentziak.

2006an, aurreko urteetan bezala, kudeaketa propio-ko gastuaren helburu nagusia izaera ekonomikoko herri ondasunak sortzea izan da, eta horretarako gastuaren %31,8 bideratu da. Diru gehien metatu duen bigarren funtzioa gizarte babesa eta sustapena da (%27,8).

8.14 grafikoa ikus daitekeenez, kudeaketa propio-ko gastuaren gainerako %40,4a honela banatu da:

- Inversiones reales.
- Transferencias de capital.

El gasto no financiero se puede analizar en base a la clasificación funcional recogida en el presupuesto:

- Deuda pública.
- Servicios generales.
- Protección civil.
- Protección y promoción social.
- Generación de bienes públicos de carácter social.
- Generación de bienes públicos de carácter económico.
- Regulación económica de carácter general.
- Regulación económica de sectores productivos.
- Transferencias sector público.

En 2006, al igual que en años precedentes, el destino principal del gasto de gestión propia es la generación de bienes públicos de carácter económico, función a la que se destina el 31,8% del gasto. La siguiente función que más dinero concentra es la protección y promoción social con el 27,8%.

Como se puede apreciar en el gráfico 8.14., el restante 40,4% del gasto de gestión propia se encuentra repartido entre:

GRÁFICO 8.14. GRAFIKOA
Kudeaketa propioko gastuaren banaketa funtzionala
Distribución funcional del gasto propio de gestión





GRÁFICO 8.15. GRAFIKOA
Kudeaketa propioko gastuaren bilakaera funtzionala
 Evolución funcional del gasto propio de gestión



- Gizarte izaerako herri ondasunen sorrera: %13,5.
- Zerbitzu orokorrak: %12,0.
- Ekoizpen sektoreen erregulazio ekonomikoa: %7,1.
- Ekonomiaren erregulazio orokorra: %4,1.
- Babes zibila, sektore publikoaren transferentziak eta zor publikoa gainerako %3,7a dira.

- Generación de bienes públicos de carácter social: 13,5%.
- Servicios generales: 12,0%.
- Regulación económica de sectores productivos: 7,1%.
- Regulación económica de carácter general: 4,1%.
- El restante 3,7% se distribuye entre Protección civil, Transferencias sector público y Deuda pública.

Bestalde, kudeaketa propioko gastua 104 milioi euro hazi da epealdian: %17,5. Hazkunde hori 2006an gertatu da (%15,3), aurreko ekitaldietan apenas baitu aldaketarik: +%0,8 2004an eta +%1,0 2005ean.

Por otro lado, el gasto de gestión propia a lo largo del periodo ha aumentado en 104 millones de euros: un 17,5%. Este crecimiento se ha producido sobre todo en 2006 (15,3%) ya que en los ejercicios anteriores apenas ha variado: +0,8% en 2004 y +1,0% en 2005.

Gastuaren funtzio desberdinei erreparatuz gero haxe ikusten da:

Si atendemos a las distintas funciones del gasto, se aprecia que:

- Guztiek hazkunde metatua dute epealdian, izaera ekonomikoko herri ondasunen sorrerak (-%7,8) izan ezik.

- Todas presentan un crecimiento acumulado en el periodo, salvo la generación de bienes públicos de carácter económico (-7,8%).

- Azken ekitaldian funtzio guztiak igo dira. Bitan, berriz, gastuen moderatua ikus dezakegu: zor publikoan %0,6 besterik ez da igo eta ekonomia-
ren erregulazio orokorra (+%3,7).

Kudeaketa propioko gastuaren helburu nagusiak, izaera ekonomikoko herri ondasunak sortzeak, beheranzko joera du: behera egin du 2004an (-%1,8) eta 2005ean (-%19,3). 2006an, ordea, zuzentzen da joera hori %16,4 igo baita. Dena den, epealdian funtzio hori %7,8 jaitsi da.

Gizarte babesa eta sustapenak, gastuaren laurdena inguru jasotzen duenak, bilakaera desberdina du, tasa positiboak eta handiak, 2004an izan ezik %1,9 besterik ez baita igo. 2005ean erritmo biziagoan egiten du gora (%13,1) eta azken ekitaldian %11,1 igo da.

Gizarte babesa eta sustapenaz gain, badira gastuaren barruan hiru talde funtzional epealdian tasa positiboak izan dituztenak: babes zibila, gizarte izaerako herri ondasunen sorrera, eta ekoizpen sektoreen erregulazio ekonomikoa.

8.2. ZERGA ITUNDUAK ETA ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOAK

8.2.0 SARRERA

8.1 apartatuan Foru Aldundiaren aurrekontu propioa aztertu da, eta ikusi dugu 2006. urtean 704 milioi euroko gastu propio ez-finantzarioa izan duela. GFaren gastu ez-finantzario guztiak, ordea, 4.134,6 milioi eurokoak izan dira eta horietatik 3.430,3 milioi erakundeekiko konpromisoei dagozkie, hau da, beste erakunde publikoekin dauden lege obligazioak betetzeko erabili dira (Estatuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako udalen gastuak finantzatzeko). Zifra horietatik ondorioztatu daitekeenez, foru administrazioa baliabideak banatzen dituen administrazioa da beste ezeren gainetik.

Bestalde, aurreko apartatuan aipatu dugu GFari egotzitako zerga itunduak, hau da, foru enteen gastu propioak finantzatzeko erabilitakoak, 631,4 milioi eurokoak izan direla zerga itunduengatik 2006an bildutakoa 3.977,7 milioi eurokoa izan denean. Jakina denez, lehen zifra hori (631,4 milioi) bi kontzeptu hauen arteko diferentziaren emaitza da:

- Zerga itunduak: 3.977,7 milioi, ken
- Erakundeekiko konpromisoak: 3.346,3 milioi euro:

- En el último ejercicio todas las funciones aumentan. En dos se aprecia una mayor moderación del gasto: la deuda pública que apenas crece un 0,6% y la regulación económica de carácter general (+3,7%).

El principal destino del gasto de gestión propio, la generación de bienes públicos de carácter económico, muestra una tendencia descendente: -1,8% en 2004 y -19,3% en 2005. Tendencia que se ve corregida en 2006 al crecer un 16,4%. En el periodo, sin embargo, ha descendido en un 7,8%.

La protección y promoción social, a la que se destina algo más de un cuarto del gasto, presenta una evolución distinta ya que mantiene tasas positivas y elevadas salvo en 2004, año en el que sólo crece un 1,9%. En 2005 crece a mayor ritmo (13,1%) y en el último ejercicio se incrementa en un 11,1%.

Además de la protección y promoción social, hay tres grupos funcionales del gasto que mantienen tasas positivas en el periodo: protección civil, generación de bienes públicos de carácter social y regulación económica de sectores productivos.

8.2. TRIBUTOS CONCERTADOS Y COMPROMISOS INSTITUCIONALES

8.2.0 INTRODUCCIÓN

En el apartado 8.1 se ha analizado el presupuesto propio de la Diputación Foral cuyo gasto propio no financiero asciende a 704 millones de euros en 2006. Sin embargo, los gastos no financieros totales de la DFG son 4.134,6 millones de los que 3.430,3 corresponden a compromisos institucionales derivados de obligaciones legales para financiar los gastos de otras instituciones públicas como son el Estado, el Gobierno Vasco y los Ayuntamientos de Gipuzkoa. Como puede colegirse de las cifras anteriores, la administración foral es ante todo una administración distribuidora de recursos.

Por otro lado, el apartado anterior se ha referido a los 631,4 millones de tributos concertados imputados a la DFG que se destinan a financiar los gastos propios del Ente Foral, cuando la recaudación por tributos concertados asciende a 3.977,7 millones en el ejercicio 2006. Como se sabe la primera cifra (631,4 millones) se obtiene por diferencia entre:

- Los tributos concertados: 3.977,7 millones
- Los compromisos institucionales: 3.346,3 millones de euros:

- 3.430,3 milioiko gastuak eta
- 84 milioiko sarrerak.

Dena den, esan behar da GFARI zerga itunduengatik egotzitako zifrak aurkeztean bazterrean utzi dela GFA-rentzat oso garrantzitsua den jarduera bat, zerga itunduen bilketa alegia.

8.2 apartatu honetan hiru gai aztertuko ditugu:

- Zergabilketa jarduera.
- Baliabideak banatzeko eginkizuna.
- GFARI egotzitako zerga itunduen zehaztapena.

Foru Ogasunaren txosten honetako 7. kapituluaren informazio zehatza eman dugu jada zerga itunduen bilketa lanari dagokionez. Nolanahi ere, apartatu honetan esparru zabalagoan kokatuko ditugu emaitzak, EAEko beste aldundietan izandako bilketarekin konparatuz eta sarrera publikoak Gipuzkoako ekonomiarekin erlazionatuz.

Erakundeekiko konpromisoak ez ditu GFARI erabakitzen.

- Kupo Estatuaaren Kupo Legean jasotzen diren irizpideen arabera finkatzen da.
- Ekarpenak Eusko Legebiltzarrak onartzen duen Ekarpenen Legean finkatzen dira.
- Udalak finantzatzeko foru fondoa Batzar Nagusiek onartzen duten foru arauaren bidez finkatzen da, baina Ekarpenen Legean jasotako gomendioei jarraikiz.

Zerga itunduen kudeaketa foru organoen erantzukizuna bada ere, Aldundiak maila instituzional desberdinen artean banatu behar ditu bere baliabideak aurrez ezartzen diren irizpideei jarraiki. Horrek esan nahi du bere sarreren kudeaketa eta kudeaketa gastuetarako dituen baliabideak disoziatu behar direla. Bada, disoziazio horren ondorioa ondoko hauen eboluzio desberdina da:

- Zerga itunduena.
- GFARI egotzitako zerga itunduena.

Apartatu honetan agerian jarri nahi da zentzuk diren alde hori eragiten duten faktore nagusiak, hau da, erakundeekiko konpromisoen zenbatekoa erabakitzen dutenak.

- 3.430,3 millones de gasto y
- 84 millones de ingresos.

